



Gardentasunerako Estrategia

2017ko azaroa



Aurkibidea

0. Sarrera.....	2
1. Egoeraren analisia. Gardentasunaren diagnostikoa.....	6
2. Helburuak: orokorrak eta espezifikoak	15
3. Gobernu Onaren printzipio etikoak.....	18
3.1. Printzipio orokorrak.....	18
3.2. Jarduteko printzipioak.....	19
4. Gardentasunaren arloko irizpide nagusiak	20
5. Gardentasunaren Ataria.....	21
6. Sortu eta argitaratu beharreko Publizitate Aktiboko edukiak.....	24
7. Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea.....	31
7.1. Kontzeptua.	31
7.2. Prozedura administratiboa.....	34
7.3. Ohar gehigarriak.....	38
7.4. Beste alderdi batzuk	38
7.5. Kudeaketa-adierazleak, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidearen asebetetzeari buruzkoak.....	40
7.6. Gardentasunaren urteroko memoria-txostena	42
8. Gardentasunaren kudeaketa.....	43
9. Udal gardentasunerako konpromisoak.....	45
10. Ekintzak eta laburpen-kronograma.....	66
11. Aurrekontua.	68
12. Gardentasun egitasmoaren adierazleak.....	69
13. Gardentasunaren komunikazioa.....	70
13.1. Egitasmoaren komunikazioaren helburuak	70
13.2. Publikoak.....	70
13.3. Mezuak.....	71
13.4. Komunikazio-ekintzak.....	74
14. Ebaluazioa eta jarraipena.....	76
14.1. Berrikusketak eta eguneratzea.	76
14.2. Arriskuak identifikatzea.....	76
15. Bibliografia.	77
16. Eranskina.....	78



0. Sarrera

Egitasmo honen helburu nagusia da udal gardentasuna sustatzea agintaldi honetan. Hainbat legek arautzen dute gardentasunaren printzipioa, eta haren xedea da herritarren eta administrazioaren arteko informazio-fluxua bermatzea, jarduera publikoa kontrolatzeko eta herritarren parte hartzea bultzatzeko.

Hala, oinarrizko arau hauek arautzen dute gardentasuna:

1. Gardentasuna izatez bitarteko bat da, ez xede bat, eta demokrazia eraginkor eta parte hartzaileago baten zerbitzura dago.
2. Legeak hala aginduta, administrazio guztiek behar dute gardenak izan; nolana ere, eskakizuna ez da bera izango autonomia edo udal mailako administrazioetan; batean foru legediak edo erkidegoari dagokionak arautuko du eta bestean oinarrizko legedia soilik aplikatuko da.
3. Administrazioaren informazio guztia, izatez, publikoa eta eskuragarria da; hala ere, badira informazioa eskuratzeko muga batzuk. Zenbaitetan, baloratu egin behar da ea datuak jendartean zabaltzeak interes publikoari erantzuten dion edo legez babestu beharreko informazioa den (pertsonek intimitatea, segurtasun publikoa, benetakoa babes judiziala, sekretu profesionala edo jabetza intelektual eta industrialak, ikuskaritzako funtzio administratiboak...).
4. Administrazioaren ardura da herritarren datu pertsonalen erabilera ona bermatzea; izan ere, intimitaterako eskubidea dute herritarrek, izaera pertsonaleko datuak babesteko arauak ezartzen dutenarekin bat etorritik.
5. Gardena izatea honako informazioa eskaintzea da: kalitatezkoa, hau da, benetakoa, argia, koherentea, epe barrukoa, berezia, egituratua, zehatza, ulergarria, osoa, segura, eskuraeraza, kanal askotarikoa, alderatzeko modukoa, formatu anitzekoa eta berrerabilgarria, legek ezarritakoa betez.

Bestalde, jakiteko eskubidea zeregin publikoetan parte hartzeko eskubidearen tresna bat da, zeinak bere baitan biltzen baitu botere publiko, politiko edo administratiboaren jarduera ezagutzeko eskubidea, haien jardunbidea kontrolatzeko eta erantzukizunak eskatzeko.

Demokrazian, administrazioa bere ekintzen eta ez-egiteen erantzule da, eta herritarrei azaldu beharra dauka zer egiten duen eta nola. Gardentasuna bitarteko juridiko eta tekniko bat da, zeinaren bidez herritarrek modu eraginkorrean parte hartu ahal duten zeregin publikoetan. Haren bitartez herritarrak informatuago egongo dira, hobeto hartu ahalko dituzte erabakiak, gai publikoetan lankidetzan oinarritutako erantzulearen parte hartuko dute, eta denon ongia eta aurrerapen kolektiboa xede duten helburuen erantzule ere izango dira.

Hitz batean, gardentasunak demokraziaren kalitatea areagotzen du:

- Laguntzen du erakunde publikoek beren funtzioen baitan jarduteko duten zilegitasuna berreskuratzen, eta, halaber, politikoekiko eta instituzioekiko mesfidantza murrizten.



- Laguntzen du gobernuaren efizientzia indartzen, gardentasunak sortzen dituen sari eta zigorren bidez.

Gardentasunaren estrategia garrantzizko udal proiektu bat da eta bere baitan biltzen ditu politikarien eta erakundearen konpromisoak gardentasunarekin eta gobernu onarekin.

Udaleko ordezkari politikoez borondatea adierazi dute beren funtzioak betetzeko, honako legeotan oinarritutako jokaera-kodea erabiliz: **19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa**, eta **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. titulua. Gobernu Irekia. Gardentasuna, Datu Irekiak eta Herritarren Parte hartzea**. Era berean, ordezkari politikoez konpromiso berriak hartuko dituzte beren gain, udal kudeaketaren esparruan etika publikoa sustatzeko eta demokraziaren eta parte hartzearen kalitatea indartzeko; hala, herritarrek gobernuarengan duten konfiantza sustatu nahi da.

Proiektuan zehaztu egin dira zein diren ordezkari publikoek bete beharreko kode etikoa osatzen duten printzipio eta erantzukizunak.

Gainera, indarrean dagoen legedia betetzeko zer jarduera eta prozedura behar diren zehaztu da, eta Udalaren gardentasun-estrategia definitu da Gobernu Irekiari dagokionez.

Era berean, zerrendatu egin dira erakundeen gaineko ezagutza eta udalaren kudeaketa hobetzeko herritarrekiko konpromisoak.

Gobernu Ona sustatzeko gardentasun-plana

Gardentasunaren proiektua Agintaldiko Planaren 10. helburu estrategikoaren baitan kokatzen da *“Gobernu ona sustatzea: efizientzia hobetzea baliabide publikoen eta erakundeko langileen asebetetzearen kudeaketan”*; halaber, *10.4 ardatz estrategikoari ere erantzuten dio. Herritarrei eman beharreko zerbitzuak hobetzea > 10.4.2. Gardentasuna sustatzea*.

Proiektuak zeharka eragiten die Eibarko Udaleko sail, zerbitzu eta unitateei. Plan honetan proposatutako jarduketan esparrua, udalaren barruan, Eibarko Udala bera izango da, -osatzen duten sail, zerbitzu eta unitateekin, eta oposizioaren alderdi politikoeekin batera-, eta, udaletik kanpo, Eibarko herritarrak eta jendartea oro har, eta baita komunikabideak ere.

Estrategia landu eta ezarri ondoren, honako onura hauek espero dira:

- Koordinazioa hobetzea udal sail eta zerbitzuen artean: emandako informazioaren kalitatea eta kantitatea hobetzea.
- Herritarren pertzepzioa hobetzea Udalarekin duten harremanari buruz: Udalak eskaintzen duen informazioa behar bezala, erraz, eta modu eraginkorrean eskaintzen delako pertzepzioa areagotzea.
- Komunikabideen pertzepzioa hobetzea, Udalarekin duten harremanari buruz: informazioa behar bezala, maiztasunez eta modu gardenean eskaintzen delako pertzepzioa areagotzea.



Proiektua osatzen dutenak hauexek dira: **Gobernua Zabalik Ordezkaritzaren arduraduna; Alkatezaren idazkaria; Langileria eta Antolaketa zuzendaria, eta Komunikazio eta Gardentasunaren teknikaria.**

Lotutako legedia

19/2013 Legeak, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoak (LTBG) (BOE 295 zk. 2013-12-10) honako hauek arautzen ditu: zer informazio argitaratu behar duten administrazio publikoek herritarrek jakinean egoteko, nola eska diezaieketen herritarrek informazioa administrazioei, eta zein diren ordezkari publikoek errespetatu beharreko Gobernu Onaren arauak.

Bestalde, **2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak** (EHAA 70 zk., 2016-04-14) 47 eta 82 artikuluen artean honako kontzeptu hau jasotzen du: *Gobernu Irekia. Gardentasuna, Datu Irekiak eta Herritarren Parte hartzea*, eta helburu nagusia da udalen eta gainontzeko toki-erakundeen gobernu irekia bermatzea, kalitate instituzionala indartzeko bitarteko gisa; hala, harreman-marko berri bat ezarriko da Euskadiko toki-gobernu maila desberdinen eta herritarren artean.

Gipuzkoan, **4 / 2014 Foru Arauak, otsailaren 6koa, Gardentasunari eta Informazio Publikoa Eskuratzeari buruzkoak** 5. xedapen gehigarrian udalekiko lankidetzak aipatzen du. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin elkarlanean arituko da Gipuzkoako Foru Aldundia, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak –edo osagarri zein ordezkari duen legeak– ezarritako obligazioak garatzeko, laguntza tekniko eta finantzarioa emanez eta, egokia bada, hitzarmenak izenpetuz. Nolanahi ere, arau hori ez da oraindik garatu.

Azkenik, **128/2016 Dekretuak, irailaren 13koa, Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordeari buruzkoak** (EHAA 177 zk., 2016-09-16), Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko eskema operatiboa garatzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gardentasuna kontrolatzeko eta, bereziki, hautazko izaeraz eta administrazioarekiko auzien ordenara iritsi aurretik, herritarrek informazio publikoa eskuratzearen arloan jardun-eremu bateko administrazio publikoek ukatzeko emandako berriazko nahiz ustezko ebazpen ororen aurrean jartzen diren erreklamazioak aztertzeko berriazko organo bat edukitzeari dagokionez.

Euskadin, egun, tramitazio-fasean dagoen beste lege-proiektu bat dugu gardentasun-obligazioei eragingo diena: Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren legea. Lege horrek erdira murriztuko ditu gehienezko epeak informazio publikoa eskuratzeko eskubideari lotutako eskaerei erantzuteko.

Eibarko Udala, bere web-orriaren bidez, aipatutako legeetara egokitu da, besteak beste, esparru instituzional, juridiko, ekonomiko eta antolamenduzkoan publizitate aktiboari dagozkion gaietan.



Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarean Parte Hartzea

Gainera, Eibarko Udalak parte hartzen du Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarean. **Sarea** 2013ko urtarrilaren 30ean eratu zen, **Eibarkoa izanik Eudelek esperientzia pilotu gisa osatzeko aukeratu ziren 24 udaletako bat. Udal horiek gaiarekiko zuten interesagatik edo**

beren toki-erakundeetan gardentasuna garatzen zeukaten esperientziagatik izan ziren hautatuak. Sarea biztanle kopuru ezberdineko 31 udalek osatzen dute gaur egun (txikiak, ertainak eta handiak), eta baita Txorierriko Mankomunitateak ere Bizkaian. **Lehen fasean, hiru lurraldeetako 24 udaletako talde pilotu batek osatu zuen sarea.**

Sarearen helburu nagusiak hauek dira: udalei gune bat eskura jartzea ezagutzak, jarduera egokiak eta estrategiak trukatzeko; metodologiak, tresnak eta materialak eskaintzea; toki-administrazioei laguntzea eta bidelagun izatea Gardentasuna haien gobernuetan ezartzeko prozesuan.

2015ean, Eibarko Udalak modu aktiboan parte hartu zuen Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen Gardentasun Batzordean, zeina Gipuzkoako Foru Aldundiaren Modernizazio zerbitzuak zuzentzen duen (udal batzuentzat erreferente izan zen Eibar, Udalarekin jartzen baitziren harremanetan aholku bila). Lantalde horren eginkizunak izan ziren udalekin koordinatzea eta adostea lanerako oinarrizko tresnak (aginte-koadroa, txantiloak, Gipuzkoa Irekia plataforma...) hala, erakunde bakoitzari dagokion gardentasun-ataria abian jartzeko eta honako lege hauetan ezarritako eskakizunak betetzeko: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Bestalde, 2017ko otsailaren 27an egindako Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eibarko Udalaren arteko hitzarmena, Eibarko Udala Gipuzkoako lurralde historikoko herritarren partaidetzarako erakunde arteko espaziora atxikitzeko. Gertaera horrek aurrerapauso handia suposatzen du gardentasunaren eta parte hartzearen alorrean, zalantzarik gabe



1. Egoeraren analisia. Gardentasunaren diagnostikoa

AMIA dokumentuan (ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak) dago laburbilduta gardentasun alorreko Eibarko Udalaren egoerari buruzko analisia; dokumentua erakundearen egungo egoeraren erradiografia bat da.

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<p>Publizitate aktiboari dagozkion eduki batzuk falta dira Udal Gardentasunaren Atarian</p> <p>Ez da herritarrekin larregi hitz egin jakiteko zein diren haien eskaerak edo lehentasunak</p> <p>Atzerapena herritarren informazio publikoaren eskaerei erantzuteko prozedura finkatu bat martxan ipintzeko orduan</p> <p>Gardentasuna web atalaren trafiko urria</p> <p><i>Dataset</i> edo argitaratutako datu irekien kopuru urria</p>	<p>Argitaratuta dago publizitate aktiboari dagokion informazio gehiena</p> <p>Finkatutako lantaldea eta esperientzia handiko profesionalak</p> <p>Udal langileen formakuntza egokia, gardentasunaren arloan</p> <p>Sentsibilitate zabala, udal informazioa web-orrian eta Gardentasunaren Atarian argitaratzearen beharrari buruz</p>
MEHATXUAK	AUKERAK
<p>Honako legeak ez betetzea zati baten: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa</p> <p>Udal langileen eta politikarien inplikazio baxua Gardentasunaren proiektuan</p>	<p>Argitaratutako informazioa argitzea eta eskuragarriago egitea: homogeneizazioa, formatuak, etab.</p> <p>Informazio berria sartzea, eta dagoena osatzea eta zabaltzea</p> <p>Prozedura bat ezartzea informazio-eskaerei erantzuteko</p> <p>Formulario bat sortzea, herritarrek jasotako zerbitzuen kalitatea ebaluatu ahal izateko</p>



	<p>Datu publikoak formatu erraz eta berrerabilgarrian jartzea herritarren esku: datuak ez daude beti ondo sistematizatuta, edo formatu egokian edo beti ez dira berrerabilgarriak</p> <p>Gardentasunaren kultura barneratzea Udalean, barne mailako komunikazio-kanalak modu intentsiboagoan erabiliz</p> <p>Gardentasunaren zeharkako mekanismoak artikulatzea Udalean (organo eta unitate espezifikoak), udal langileen formakuntza eta inplikazioa sustatzeko</p> <p>Beste erakunde batzuetako praktika onak ezagutzea</p>
--	---

AMIA GARDENTASUNA



AHULEZIAK

- **Publizitate aktiboari dagozkion eduki jakin batzuk falta dira Gardentasunaren Udal Atarian:** Egun, Gardentasunaren Udal Atarian, -zeina Gipuzkoa Irekia (eibar.gipuzkoairekia.eus) plataforma barruan kokatuta dagoen- betebeharreko eduki hauek falta dira: Agintaldiko Plana; udal organigrama; laburtutako aurrekontua eta bertako kontzeptuen glosarioa edo azalpena hizkera erraz batean; gardentasuna, kudeaketaren efizientzia eta eraginkortasunean; gardentasuna, lanpostuen aukeraketan eta betetzean; gardentasuna, hirigintza eta obra publikoen arloan; gardentasunaren konpromisoa, hedapena eta komunikazioa (herritarren parte hartzearen ordenantza eta gardentasuna proiektuan).
- **Herritarrei ez zaie elkarrizketa sakonik egin jakiteko zer eskaera edo lehentasun duten udal gardentasunari buruz:** Orain arte, ez da egin soilik eta berariaz gardentasun kontuekin erlacionatutako inkestarik; hala ere, 2016an egin zen inkesta bat komunikazioari buruz, non herritarren hainbat eskakizun jaso ziren gardentasunarekin lotutakoak, hala nola, udalaren aurrekontua modu argi eta errazean ikusi ahal izatea. Era berean, web-orriaren gardentasun atalak duen bisita kopuru urriak agerian uzten du herritar askok ez dakitela atala badenik ere, eta, gainera, informazioa webgune batean egoteak zaildu egiten du hainbat kolektibok orria kontsultatzea (herritar askok zailtasunak ditu Internetera sartzeko edota ez dago teknologia berrietara ohituta).
- **Atzerapena herritarren informazio publikoaren eskaerei erantzuteko prozedura finkatu bat martxan ipintzeko orduan:** Proiektu hau idazten hasi ginenean, 2016ko urriaren 21ean, oraindik ezarri gabe zegoen informazio eskaerei erantzuteko prozedura. Nolanahi ere, komunikazio eta gardentasunaren lantaldea elkarlanean aritu zen antolaketaren arduradun teknikariarekin eta Udaleko idazkariarekin, prozedura bat sortu eta finkatzeko, herritarrek etorkizunean egin ditzaketen eskaerei erantzuteko. Gaur egun, prozedura bat zehaztu da eta martxan ipiniko da modu ofizialean onartzen denean. Bien bitartean, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak egiteko, herritarrek Eibarko Udalaren gardentasun ataleko inprimakia erabil dezakete, zeina Gipuzkoa Irekia plataformaren barruan dagoen: <http://eibar.gipuzkoairekia.eus/es/informazio-publikoaren-eskaera-/participateWebForm/webForm>.
- **Gardentasunaren web atalaren trafiko urria:** 2016an, gardentasunaren web atala gaztelaniaz bisita gehien izan dituen 16. orria izan da, 2.246 bisitarekin guztira (% 0,39). Bestalde, 519 pertsonak (% 0,53) kontsultatu zuten atala euskaraz, hau da, bisita gehien izan dituen 17. orria izan da.

Urtebete lehenago, 2015ean, 1.384 bisita jaso zituen atalak (bisita guztien % 0,25) gaztelaniaz (15. lekua) eta 756 bista euskaraz (14. lekua), guztien % 0,62.

- **Dataset -datu irekien multzoa- kopuru urria:** Egun, Eibarko Udaleko Gardentasun Atariaren Datu Irekien atalak (Gipuzkoa Irekia eibar.gipuzkoairekia plataforma barruan kokatua) soilik 37 datu sorta ditu (IZFE Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak argitaratuak gehienak). Erakundeak epe ertain/luzera egin beharreko beste apustu nagusietako bat izango da eduki propioak sortzea atala indartzen laguntzeko eta herritarren esku datu eskuragarriak eta berrerabilgarriak jartzea errazteko.



MEHATXUAK

- **Ez betetzea zati baten 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa; ezta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa ere.** Bi legeok indarrean jartzearekin batera, gure Udala, gainontzeko erakunde eta entitate publikoak bezala, behartuta dago arau horiek ezartzen dituzten betebeharrak eta baldintzak betetzera, bai publizitate aktiboaren arloan bai publizitate pasiboan ere. Bi lege horiek ezarritako beste edozein eskakizun ez betetzea erlaxatua dago publizitate aktiboaren edukiren bat, batzuk edo bat ere ez jasotzearekin; edukiok behar bezala eta eguneratuta argitaratuta egon behar dira Gardentasunaren Atarian, aurretik ezarritako irizpide batzuei jarraituz.
- **Langileen eta politikarien inplikazio baxua Gardentasunaren proiektuan:** Erakundearen arriskueta bat da udal langileak ez sentitzea Gardentasunaren proiektuaren parte, kontuan hartuta aurreko atalean legeek ezarritako eskakizun eta betebeharrak eta kontziente izanik gardentasunak zuzenean eragiten diela sail, unitate eta zerbitzu guztiei. Erakundeko giza taldearen laguntzarik eta lankidetzarik gabe, ezinezkoa litzateke halako proiektu bat aurrera ateratzea.

INDARGUNEAK

- **Argitaratu da dagoeneko publizitate aktiboari dagokion informazio zatirik handiena:** Aurreko lerroetan azaldutako ahulguneak gorabehera, Gardentasunaren Udal Atariak eduki ugari argitaratu eta eguneratu ditu: kargu hautatuak eta konfiantzazkoak; gardentasuna, udal langile eta antolaketari dagokionez (udal organigrama falta da, udal kontratazioari buruzko informazio zehatzagoa...); gardentasuna herritarrekiko harremanetan; gardentasuna udal planifikazioan (sailen programa eta memoriak); gardentasuna informazio ekonomiko-finantzarioan (udalaren aurrekontu osoa, ratioak, diru-laguntzak, zorra...); gardentasuna kontratazioan; open data; udal araudiak eta akordioak (Alkatetzaren dekretu eta ebazpenak falta dira...); gardentasunaren konpromisoa (Gardentasun Ataria) , hedapen eta komunikazioa. Hala ere, ezinbestekoa da etengabe eguneratzea edota berregituratzea.
- **Finkatutako lantaldea eta esperientzia handiko profesionalak:** Gardentasuna osatzen duen lantalde teknikoaren kideek eskarmentu handia dute beren alorrean, eta ezagutza maila egokia dute beren funtzioak betetzeko. Haietako bakoitza aditua da arlo jakin batean: Ekonomia Zuzenbidea, Komunikazioa eta Ekonomia.
- **Udal langileen formakuntza egokia gardentasunaren arloan:** Udal langileek 2015 eta 2016an prestakuntza zabala jaso zuten gardentasun gaietan. 2015eko irailean, Gizarpro enpresak “Gardentasunari buruzko kontzeptu oinarritzakoak” izeneko ikastaroa eman zuen Eibarko Udalaren Areto Nagusian. Ia urtebete geroago, 2016ko ekainean, beste tailer batzuk antolatu ziren Areto Nagusian antolamenduari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruz.

Udaletxean emandako saioez gain, 2015eko apirilaren 22, 23 eta 24an, Langileria eta Antolaketaren zuzendaria eta komunikazio- eta gardentasun-teknikaria Bilbon IVAPek antolatutako “Gardentasuna: legezko obligazioa eta herritarrekin harremanetan jartzeko aukera. Nola hasi gardentasuna aplikatzen eta nola hobetu” ikastaroan egon ziren; halaber,



2016an, online ikastaro bat eta beste aurrez aurreko bat egin zituzten Open Data edota Datu Irekiei buruz. Beste langile publiko batzuk ere egon ziren IVAPek antolatutako Open Data ikastaroan.

- **Udalaren web-orrian eta Gardentasunaren Atarian informazioa argitaratu behararen kontzientzia handia:** Eibarko Udala 2015eko uztailetik ari da lanean publizitate aktiboarekin lotutako eduki nagusiak sortzen edota eguneratzen. Sail eta zerbitzu gehienak kontziente dira lan horrek eskatzen duen esfortzuaz, baina badakite onurak ere ekartzen dituela herritarrek gertuen daukaten erakundearekiko pertzepzioa hobetzen laguntzeko.

AUKERAK

- **Argitaratutako informazioa argitzea eta eskuragarriago bihurtzea: homogeneousazioa, formatuak, etab.:** Erakundeak bete beharko duen apustu nagusietako bat izango da gardentasunaren web atala osatzen duten alor desberdinak osatzea eta edukiak eskaintzea modu argi, erraz, eskuraerrazean eta formatu berrerabilgarrietan.
- **Informazio berria sartzea eta dagoena osatzea eta zabaltzea:** Argitaratutako informazioa osatzea eta eguneratzea oso garrantzitsua da gardenago izatea lortzeko.
- **Prozedura bat ezartzea informazio publikoaren eskaerei erantzuna emateko:** informazio publikoa eskuratzeko eskubidea honako lege hauek arautzen dute: 19 / 2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publiko Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa (LTBG) eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Informazio publikotzat joko dira dokumentuak, edozein dela ere euskarria edo formatua, baldin eta Eibarko Udalaren eta hari lotutako erakunde publikoen esku badaude eta haien funtzioen baitan sortu edo eskuratutakoak badira, erakundeok Udalaren mendeko zein independente izanda ere.

Edozein herritarrek, dela norbanako gisa dela legez eraturako elkarteen izenean, eskubidea du informazio publikoa eskuratzeko aurretik hala eskatuz gero; horretarako muga bakarra honako lege hauetan ezarritako araudia izango da: 19/2013 Estatuko Legea eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Eskubide hori betetzeko, ez da beharrezkoa izango eskaera arrazoitzea, ezta estatu edo autonomia mailako legea aipatzea ere.

Bai Udalarentzat bai herritarrentzat, beharrezkoa da dagoeneko definituta dagoen eta balioko duen prozedura administratiboa martxan ipintzea sor daitezkeen informazio-eskaerei erantzuteko. Hala, hobeto ezagutu ahalko ditugu zein diren herritarrek kezkatzen dituzten gaiak –eta gardentasunaren web atalean argitaratuta ez daudenak–, eta, era berean, zehatz-mehatz jakingo dugu zenbat eskaera erregistratu diren.

- **Galdetegi bat sortzea herritarrek ebaluatu ahal dezaten jasotako zerbitzuen kalitatea:** Gardentasuna eta gobernu ona sustatu eta herritarren partaidetza areagotze aldera, beste erronketako bat da galdetegi bat sortzea, herritarrek jasotako zerbitzuei buruzko iritzia eman dezaten. Gainera, herritarrek asebetetze maila erakutsi ahalko lukete, azken bi urteotan gardentasunaren arloan Udalak eginiko aurrerapenekiko.



- **Datu publikoak formatu eskuragarri eta berrerabilgarrian jartzea herritarren esku: datuak beti ez daude ondo sistematizatuak, edo formatu egokian edo ez dira beti berrerabilgarriak:** Administrazio publikoak kudeatzen dituen datuak herritarren esku jarri behar dira era irekian eta berrerabiltzeko modu errazean. Edozeinek aztertu, berrerabili eta zabaldu ahalko ditu datuok, haietatik abiatuta zerbitzu edo produktu berriak sortuz.

Datu irekiek ez dute egile-eskubiderik, ez patenterik, ezta beste ezein kontrol-mekanismo ere. Pertsona edo administrazio batek argitaratu ditzake datu batzuk munduko mutur batean, eta beste batek irakur ditzake datuok beste muturrean, batere kosturik gabe.

Datu irekien xede nagusia da bai herritarrek bai enpresa pribatuek balio erantsiko produktu eta zerbitzuak sortzea gizartearen probetxurako, datu publikoetan oinarriturik. Era askotariko zerbitzuak sor daitezke, datuen kazetaritza delakotik hasi eta zerbitzu publikoen esku dauden aplikazioetaraino. Informazioa eskuragarri dago pertsona guztientzat, eta ordaintzeko zerbitzuak edo doakoak sor daitezke.

Datuak, hala, zabalik daude edonorentzat, eta herritarrek zerbitzu edo produktu berriak sor ditzakete administrazioaren datuak erabiliz.

Eibarko Udalak orain arte hainbat datu ireki argitaratu ditu eibar.gipuzkoairekia.eus plataforman, nahiz eta, egia esan, ez diren kasu guztietan formatu egokian edota berrerabilgarrian argitaratu. Ondorioz, erakundearen beste erronka bat da *open datari* dagozkion eduki propioak sortzen jarraitzea edota datu ireki ondo sistematizatuak sortzea formatu egoki eta berrerabilgarrian.

Artxiboaren formatua estandar bat da zeinak definitzen duen nola dagoen kodifikatua informazioa artxiboan. PDF, HTML eta halako formatuak, testu-prozesadoreak (Microsoft Word, OpenOffice Writer, etab.) ez dira berrerabilgarritzat jotzen, makinek nekez prozesatzen baitituzte. Formatu horiek irakurtzeko moduko informazioa argitaratzeko prestatuta eta pentsatuta daude.

Oro har, berrerabilgarritzat jotzen diren formatuak ahalbidetu eta erraztu egiten dute datu egituratuak prozesatzea, manipulatzeko eta aldatzea. Formatu horiek ahalbidetu egin behar dute datuon erabilera automatizatu, programazio-hizkuntzen bitartez.

Kalkulu-orrien formatuak (Microsoft Excel, OpenOffice Calc, etab.), CSV (komen bitartez bereizitako balioak), XML, JSON, etab. berrerabilgarritzat jotzen dira, makinek egituratu eta prozesatu ditzaketan datuak baitira.

- **Udalan gardentasunaren kultura barneratzea, erakunde barruan dauden komunikazio-kanalak modu intentsiboagoan erabiliz:** Udal gardenagoa eta herritarrengandik gertuagoa izango bada, erakundeak ekin beharreko erronkarik nagusiena, zalantza barik, zera izango da: langileen artean gardentasunaren kultura sustatzea. Udal langile guztien konpromisorik gabe, ezinezkoa litzateke halako egitasmoa aurrera ateratzea. Hain zuzen ere, eta langile guztiek proiektuan parte har dezaten, komenigarria da, besteak beste, dagoeneko existitzen diren komunikazio-kanalak modu intentsiboagoan erabiltzea: e-posta korporatiboa, partekatutako direktorioak, espedienteen kudeatzailea, etab.



Gardentasuna dela eta, Administrazio Publikoak obligazioa du daukan informazioa edozein herritarren esku jartzeko, behar bezala justifikatuz sarbideari jarritako mugak.

Lehen, administrazio-prozedurei jarraituz, espedientea eskuratzeko eskubidea baino ez zegoen. Orain, horrez gain eta ezagutzeko eskubidearen haritik, informazio publikoaren sarbiderako eskubidea dago.

Gardentasunak bide emango die administrazio likido, malgu eta eskuragarrien modeloei, non emaitza onenak lortze aldera informazioa erraz iristen zaien herritarrei, informazioa elkarrizketara eta eztabaidara zuzenduta baitago eta herritarrekin batera sortua baita. Administrazio modelo bat, non erabakiak azkar hartuko diren, non herritarrak eta administrazioak elkarrengandik ikasiko duten eta elkar ezagutuko duten konfiantza giroan oinarrituz. Paradigma-aldaketa hori ezin da aurrera eraman langileen lankidetzarik gabe.

- **Gardentasunaren zeharkako mekanismoak eratzea (organo eta unitate espezifikoak), udal langileen formazioa eta partaidetza sustatzeko:** Erakundeetan lantzen diren beste hainbat eduki eta gai bezala, zeharkako gai bat da gardentasuna, eta zuzenean edo zeharka eragiten die hala udalaren sail, zerbitzu edota unitateei nola oposizioaren alderdiei. Horregatik, eta aurreko atalean adierazi dugunez, garrantzi handia du udal langile guztien inplikazioak; izan ere, sail edo zerbitzu bakoitzari dagokion materiala landu eta erraztu ondoren, Gardentasunaren Atarian argitaratu ahalko da. Azken bi urteotan jasotako trebakuntza, halaber, erabakigarria izan da langileek hobeto uler dezaten gaiarekin lotutako legeria eta, hala, zehatzago erantzun diezaieten planteatutako gaiei.
- **Beste erakunde batzuetako jarduera egokien ezagutza sustatzea:** Oro har, “jarduera egokiak” dira araudi jakin bati edo adostutako parametro bati erantzuten dioten helburu eta prozedura egokiek edo aholkatutako jarraibideek gidatutako esperientziak; jarduera egokiak dira, halaber, emaitza positiboak lortu dituzten esperientziak, haien eraginkortasuna eta probetxua erakutsiz testuinguru jakin batean. Horren harira, Eibarko Udalak kontuan hartu du gardentasunaren arloan Euskal Herriko eta estatu mailako beste udal batzuek egin duten lana, eta saiateren ari da bere beharretara eta interesetara egokitzen eraginkorrenak diren jarduerak. Erkidego mailan, horren adibide dira Ermua, Irun, Gasteiz, Bilbo edo Getxoko udalak.

Estatu mailan, Bartzelona, Gijón, Alcobendas, Valentzia edo Cartagenako udalak finantza publiko ulerterrazagoen adibide dira. Erakunde horiek aurrekontuen gardentasunean jarri dute arreta tresna garrantzizko gisa, beren aurreikuspen ekonomikoak hobetzeko eta “gobernantza ona”-ren bidean aurrera egiteko. Udal horiek “zabaltzen” duten informazioa **eskuragarri** eta **ulerterraza** izatea ezinbesteko baldintza da gardentasunaz hitz egiteko, hain zuzen ere, kontabilitate modernoaren konplexutasun tekniko eta informazio kopuruagatik.

Era berean, gogorarazi behar da badirela entitate batzuk udalen gardentasuna ebaluatzen ari direnak. Ezagunena “**Transparencia Internacional España**” (www.transparencia.org.es) gobernuz kanpoko erakundea da, zeinak ebaluatu eta argitaratzen duen honako lan hau: [Índice de Transparencia de los Ayuntamientos 2017 \(ITA\)](#); bertan aztertzen da zer gardentasun eta irekiera maila duten estatuko udalek, zein bere udalekiko eta gizartearekiko oro har.

Beste zerrenda bat [Dyntra](#) da, non lehen bost postuetako hiru Euskal Herriko hiriburuek betetzen duten.



Bestalde, badira hainbat hitzarmen, nazioarteko eta gobernuarteko adierazpen, eta gobernu zibilaren printzipio, aholku eta estandar zeinak lotuta baitaude ezagutzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekin. Informazio hori erreferente diren eta gardentasun-lobbytzat jo daitezkeen honako entitate hauen webguneetan dago jasota:

Transparencia Internacional Españak adierazten du bere egiten duela gardentasuna egungo gizartearen erronka nagusi bat dela, eta berezko lotura duela herritarren jakiteko eskubidearekin; izan ere, herritarrak gero eta gehiago ari dira eskatzen informatuta egotea eta eragiten dieten erabakietan parte hartzea. Printzipio horiekin bat eta TI-k erakunde global gisa duen helburu eta estrategiaren baitan, TI-España-k bere egin du Espainiako erakunde publikoek sortzen duten informazio eta irekitze maila modu jarraituan areagotzeko konpromiso soziala.

Access Info Europe giza eskubideen erakunde bat da informazioaren sarbiderako eskubidea sustatu eta babesten duena Europan eta mundu osoan; erakundea tresna bat da askatasun zibilak eta giza eskubideak defendatuz, herritarren partaidetza eta gobernuen fiskalizazioa errazteko.

CIVIO Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da eta herritar aktibo eta parte hartzaile kontzeptua indartu nahi du; bereziki, aplikazio teknologikoak garatuz eta kazetaritza-eduki berri eta kalitatezkoak sortuz, eragin nahi dio informazioaren gardentasunari eta datuak zabaltzeari.

Proaceso Koalizoak 65 erakunde biltzen ditu, besteak beste, Transparencia Internacional España, Acces Info Europa eta Civio Fundazioa. Mugimendu zabal eta anitza da, eta xede du Informazio Publikoaren Sarbidea lortzeko gaitasuna eta ahalmena sustatzea. Erakundeen eta norbanakoen plataforma bat da eta zeregin hauek ditu: informazioa eskatzea, ikerketak garatzea, diagnostikoak egitea, esperientziak eta baliabideak trukatzea, trebakuntza ematea eta partekatutako agendak eraikitzea esparru publikoan eragiteko. Erakunde honek sortu zuen “Tu derecho a saber” Bloga zeina lehen web-orria den Espainian herritarrei errazten diena informazioa eskatzea edozein erakunde publikori; horrez gain, erakunde horien erantzunak argitaratzen ditu eta baita administrazio publikotik nola erantzuten den azaltzen duten txostenak ere. Nolanahi ere, azken egunotan itxi egiten dute bloga. Ideia web-orri britainiar honetan dago oinarritua: [mySociety WhatDoTheyKnow.com](http://mySociety.WhatDoTheyKnow.com). *Tu derecho a saber* blogaren antzeko beste aplikazio batzuk abian daude dagoeneko beste herrialde batzuetan, hala nola Brasil, Alemania, Txile edo Kosovon, eta Europako Batasunean, AsktheEU.

Pro Bono Público irabazi asmorik gabeko erakunde bat da 2009an sortua; xede du datu publikoak jendarteratzea eta teknologia erabiltzea administrazioen gardentasuna eta efizientzia areagotzeko, hala, gure gizarte-bizitza hobetuz. “Dónde van mis impuestos” proiektuarekin hasi ziren.

Red de Entidades Locales por la Transparencia y la Participación Ciudadana, “erronka bat da baina baita aurrera egiteko aukera ere, toki entitateei ahalbidetuko baitie Legearen obligazioei hobeto ekitea ikuspegiak eta baliabideak partekatuz”.

Asociación Española de Acreditación de la Transparencia-AKREDITRA, irabazi asmorik gabeko erakundea da 2013an sortua, zeinak biltzen dituen gardentasunaren alorren aholkularitza lanetan ari direnak eta baita gaian erabat konprometituta dauden entitateak ere. Haren kideak, norbanako edo kolektiboak, Gardentasuna Egiatzatzeko Espainiako Sistemaren oinarri dira.



Transparencia española entitate independente bat da eta haren helburua da gobernu onaren, gardentasunaren eta informazioaren sarbidearen aplikazioa sustatzeaz eta errazteaz gain, gobernu ireki, garden eta parte hartzailea sustatzea. Horretarako, honako lan hauek egiten ditu: konparazio-azterlanak, sakoneko ebaluazioak, garapenaren aholkularitza, formakuntza tekniko eta estrategikoa, gardentasunerako komunikazio-kanalen artikulazioa, ikuskaritza- eta egiaztatze-lanak. Gardentasunaren Legearean “Udal Behatokia” jarri du martxan. Ikerketa horrek 5.000 biztanletik gorako 1.305 udalak hartuko ditu eta aztertuko dituen 120 alderdiren bidez ezagutu ahal izango da udal horien konpromiso maila gardentasunarekin eta gobernu onarekin.



2. Helburuak: orokorrak eta espezifikoak

2.1. Helburu orokorrak

- **Lege hauek betetzea: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. titulua. Gobernua Irekia. Gardentasuna, Datu Irekiak eta Herritarren Parte hartzea.**

Jarduera publikoaren gardentasuna zabaltzea eta indartzea, jarduerari lotutako informazioaren sarbiderako eskubidea arautzea eta bermatzea, eta arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren obligazioak ezartzea.

- **Udal Batzarraren konpromisoa gardentasunarekin eta gobernu onarekin.**

Gobernu Onaren printzipioak nahiz harekin lotutako araudian ezarritako jarduketa-printzipio nagusienak betetzea.

- **Ordezkeri politikoenganako konfiantza hobetzea jarduera politikoan haien jokaera egokia indartuz eta portaera-jarraibideak finkatuz, zeinek lagunduko duten gobernu onaren jarduerak sortzen.**

Herritarrek kargu hautatuen jokaerarekiko duten konfiantza areagotzea.

- **Gardentasunaren kultura aplikatzea udal kudeaketa-modeloaren zeharkako eragile gisa, eta Gobernu Irekiaren modeloan aurrera egitea.**

Gardentasunaren kontzeptua praktikan jartzea bai Eibarko Udalaren sail, zerbitzu eta unitate guztietan bai haren mendeko entitateetan. Halaber, xedea da herritarren lankidetzaz lortzea, zerbitzu publikoak sortu eta hobetzeko zein gardentasuna eta kontu-ematea indartzeko.

- **Gure gardentasun-konpromisoak erakundeko kudeaketaren eta kontu-ematearen tresna bideratzaile gisa zehaztea eta argitaratzea.**

Gardentasunaren jokaeraren eta jarduera egokien kodea ezartzea.

- **Gardentasuna sustatzeko eta hobetzeko jarduera eta prozedurak garatzea.**

Prozedura espezifikoa bat sortzea, informazioaren sarbiderako eskaerei erantzuteko, eta are barne-prozedura bat ere, Publizitate Aktiboarekin lotutako gaiak kudeatzeko.

- **Udalaren web-orrian, formatu berrerabilgarrian argitaratzea eskura dagoen informazio osoa.**

Dokumentuak formatu berrerabilgarrietan argitaratzea, hala nola Word edo Excel.



2.2. Helburu espezifikoak

- **Honako lege hauek ezarritako informazioa argitaratzea: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. titulua. Gobernua Irekia. Gardentasuna, Datu Irekiak eta Herritarren Parte hartzea.**

Hainbat atal antolatuko dira gardentasunaren informazioari dagokionez: antolaketa, planifikazioa eta ondarea; garrantzi juridikoa duten arauak eta informazioa; ekonomia, finantzak, aurrekontuak eta estatistikak; goi-karguak eta arduradunak; herritarrekiko harremanak; ingurumena; kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak; proiektuak eta obrak. Haietako bakoitzean, modu egituratuan argitaratuko dira erakundeak hartutako gardentasun-konpromisoak.

- **Udal ordezkari publikoen kode etikoa osatzen duten printzipioak zehaztea.**

Ordezkarri hautatuek bete beharreko kode etikoa eta jokaera-kodea zehaztea.

- **Legeetan jasotako “Informazio publikoaren sarbiderako eskubidea” ahalbidetuko duen prozedura ezartzea, gure antolamendu-sisteman txertatuz eta udal web-orrian prozedura elektronikoa argitaratuz.**

Informazio-eskaerak tramitzeko eta ebazteko prozedura zehaztea. Gainera, identifikatu behar da erakundearen barruan zein den sarbiderako eskaerak kudeatzeko eskumena duen organoa. Horretarako, Gardentasunaren Batzordea sortuko da, eta hauexek izango dira partaideak: Udaleko idazkaria, Gobernua Zabalik Ordezkaritzaren arduraduna, Langileria eta Antolaketa zuzendaria eta Komunikazio eta Gardentasunaren udal teknikaria.

- **Udal web-orrian, informazioa landu, eguneratu, hobetu, argitaratu eta jarraitzeko prozedura ezartzea.**

Informazioa etengabe eguneratzea errazteko prozedura bat adostea Udalaren sail, zerbitzu, unitate, patronatu eta enpresa publikoekin.

- **Aldian-aldian gardentasunarekiko konpromisoak eguneratzea.**

Hartutako konpromisoak direla eta, informazio eguneratua, osoa, erabilgarria eta benetakoa eskaintzea ezarritako data eta epeetan.

- **Udal gardentasuna eta gobernu ona sustatzen dituzten informazio berriak argitaratzea.**

Udalaren Gardentasun Atarian, honako lege hauetan jasota ez dauden bestelako edukiak sartzeari: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, de Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.



- **Argitaratutako edukien argitasuna hobetzea, herritarrek hobeto uler ditzaten.**

Apustu irmoa egitea gardentasun maila gorena lortzeko, eta modu jarraituan informazio gardenagoa, argiagoa, eskuraerazagoa, ulergarriagoa eta berrerabilgarriagoa argitaratzen segitzea.

- **Informazioa formatu berrerabilgarrietan jartzea herritarren, erakundeen eta enpresen esku, beti ere errespetatuz datuak babesteko eskubidea eta jabetza intelektuala izateko zein segurtasunerako eskubideak.**

Informazioa formatu elektronikoko berrerabilgarri eta ustigarrietan argitaratzea, DPBLren jabetza intelektualerako edo segurtasunerako eskubideak errespetatuz.

Informazio publikoa berrerabiltzea sustatzea, sektore publikoan informazioa berrerabiltzeari buruzko oinarritzko legediari jarraituz, xede izanik herritarren esku jartzea administrazioen erabilera libreko datuak. Berrerabilgarritasunak, halaber, kontuan hartuko ditu esparru publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko oinarritzko legedian ezarritako helburuak. (2/2016 Legearen 60. artikulua, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa).

- **Erakundeko langileei gardentasun-konpromisoak jakinaraztea, partaidetza eta erantzukidetasuna sustatzeko.**


Langileen artean gardentasunaren proiektua banatzea eta bertan parte hartzera gonbidatzea une oro.

- **Udaletik kanpo, gardentasunarekiko konpromisoak gizartean ezagutaraztea, herritarren parte hartzea, erantzukidetasuna eta kontrola bultzatzeko.**

Herritarrei informazioa ematea gardentasunean lortutako aurrerapenei buruz.

3. Gobernu Onaren printzipio etikoak

Jarraian zehazten dira gardentasunaren arloan aurrera egiteko Eibarko Udaleko ordezkari politiko kargudunek jarraitu beharreko Gobernu Onaren printzipio etikoak.



Printzipio orokorrak:

- **Legezketasuna:** Eibarko ordezkari politikoek beren funtzioak betetzean Espainiako Konstituzioan, Autonomia Estatutuan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan xedatutakoa beteko dute, eta beren jarduna Plan honek zehazten dituen printzipio etikoei eta jarduteko printzipioei atxikiko zaie
- **Zehaztasun ekonomikoa, efizientzia eta eraginkortasuna:** Zuzen jokatu dute kudeaketa ekonomiko-finantzario eraginkorra burutuz, jokabide-kodea gordez eta interes-gatazkarik izanez gero, berena edo beste toki ordezkari kargudun batzuei eragin diezaiekeena jakinaraziz.
- **Ekitatea:** Beren jardunean inpartzialtasun printzipioa errespetatuko dute interes partikular ororen aurrean. Printzipio horrek era guztietako jarduketei eragingo die: kontratazio publikoak, pertsonalaren izendapenak, diru-laguntzak, etab.
- **Sentikortasuna:** Beren eginkizunak betetzean, berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua ziurtatuko dute.
- **Adostasuna:** Behar besteko arretaz jokatu dute beren betebeharra betetzean, eta kalitatea bultzatuko dute zerbitzu publikoak ematean.
- **Gardentasuna:** Hautetsiek gardentasunez jokatu dute gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioekin bat etorri eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin.



- **Partaidetza:** Beren gain hartuko dituzte beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna eta egindako hutsegiteen ondorio politikoak, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkiekeen beste batzuk.
- **Erantzukizuna:** Jokabide duina izango dute beren eginkizunak betetzean, eta arreta bereziz tratatuko dituzte herritarrak, administrazio publikoko langileak eta hornitzaileak.

Jarduteko printzipioak (19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzkoa, 26. art.), zinegotzi guztiei aplikatzen direnak:

- Bateriaezintasunak eta interes-gatazkak arautzeko araudia erabat errespetatuz eta dedikazioz beteko dute beren zeregina.
- Beren eskumenak betetzean jakin dituzten egitate edo informazioei dagokienez, behar den zehaztasunarekin jarduteko dute.
- Arauz kanpoko jokabideren baten berri izanez gero, eskumena duten organoei jakinaraziko diete.
- Boterea zertarako jaso duten, horretarako baino ez dituzte gauzatuko indarrean den araudiak ematen dizkien botereak, eta interes publikoa edo Udalaren ondarea arriskuan jar dezaketen ekintzak saihestuko dituzte.
- Ez dira beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan inplikaturik, eta ez dute esku hartuko, baldin eta tartean beren objektibotasunari eragin diezaioketen kausaren bat badago.
- Ez dute berentzat oparirik onartuko, baldin eta opariok ohiko erabilera edo erabilera soziala edo kortesiazkoa gainditzen badute, eta ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskaintako zerbitzurik edo mesederik, baldin eta horrek baldintzatu egin baditzake beren eginkizunak betetzeko orduan. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.
- Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.
- Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta gordeko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili aplikatzeko den araudiak onartzen dituenetik kanpo dauden jardueretarako.
- Ez dute Administrazioan daukaten posizioa erabiliko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.

Aprilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 35. artikuluan diotenaren arabera, toki-erakundeetako kideei, nolahi ere, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta

Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako jarduera- eta jokabide-printzipioak aplikatuko zaizkie.



4. Gardentasunaren arloko irizpide nagusiak

Gardentasunaren arloan erabili beharreko irizpide orokorrak honako hauek dira:

1. Gardentasunaren bezeroak herritarrak dira, eta, horregatik, gardentasunari dagozkion edukien egituraketan haiek izan behar ditugu kontuan. Beraz, ikuspegi komunikatiboa izan beharko dugu.
2. Zorroztasun juridikoa eta teknikoa bateragarri egitea informazio ulergarriarekin (eskemak, grafikoak...). Irigarria ez den informazioa, administrazio hizkera zailean ezkutatzen dena, egon daiteke argitaratuta gure Gardentasunaren Atarian, baina ez da benetako gardentasuna izango. Beraz, hizkera irigarria erabili behar dugu.
3. Gogoratzea beti gardentasunaren ardatz nagusia ikuspegi ekonomikoa dela (“nora doaz nire zergak”). Horregatik garbi utzi behar dugu zertan gastatzen den dirua (nolako jardueretan, nolako emaitzak izaten diren...) eta nola gastatzen den (zein eratako gastuak egiten diren, norekin kontratatzen diren...).
4. Kontuan hartzea izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiak ezartzen dizkigun mugak.
5. Informazioa, ahal dela, formatu zabal eta berrerabilgarrietan argitaratzea, herritarrek beren analisiak egin ahal izateko baliagarria den informazioari dagokionean, behintzat (aurrekontuak, estatistika taulak...).
6. “Eguneratuta ez dagoen informazioa ez da gardena”. Hala bada, beharrezkoa da gardentasunari lotutako edukiak eguneratzeko sistematika bat ezartzea.
7. Kontuan hartzea gardentasuna komunikazioa dela eta komunikazio ikuspegi hori ezin dela isolatuta egon Udaleko gainontzeko komunikazio jardueretatik. Gardentasunaren Ataria erakundearen webgunean txertatuta egon beharko da, eta, hainbat kasutan, beren edukiak elkarrekin lotuta egon beharko dira.
8. Kontuan hartzea berdintasunaren ikuspegia txertatu behar dela gardentasunean. Horrek betebeharrak legalak eta erakundearen barne konpromisoak dakartza; hizkera ez sexista erabiltzea eta datuak sexuaren arabera bereizita argitaratzea, besteak beste.
9. Era berean, elebitasunaren ondoriozkoak diren betebeharrak ere errespetatu behar dira.



5. Gardentasunaren Ataria

Gardentasunaren Ataria erakunde batek gardentasunarekiko konpromisoari eta betebeharrari erantzuteko duen tresnarik garrantzitsuen da. Internet bidezko sarbide irekia duen informazio-plataforma bat da, eta edozein herritarrek, modu erraz eta intuitiboan, denbora errealean eskura eduki dezake erakunde bati buruzko informazioa, lege araudiak exijitzen duena edo erakunde horrek konpromiso legal horretatik haratago duen konpromisoak eskatzen duena.

Udalaren Gardentasunaren Atariaren funtzioak honako hauek dira:

- **Publizitate Aktiboaren edukiak eskuratzea**
- **Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea online kanalaren bitartez erabiltzea ahalbidetzea**
- **Gardentasunaz eta gobernu onaz komunikatzea**

Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 11. artikuluan dioenaren arabera, Gardentasunaren Atarian erregelamenduz ezarritako baldintza teknikoen arabera argitaratuko da informazioa, eta honako printzipio hauen arabera izan beharko du informazio horrek:

- a) Irisgarritasuna:** dokumentuei eta informazio-baliabideei buruzko informazio egituratua emango da, informazioa errazago identifikatu eta aurkitzeko.
- b) Elkarreragingarritasuna:** argitaratzen den informazio guztia Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalaren (urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuak onartu zuen) eta elkarreragingarritasunari buruzko arau teknikoen arabera izango da.
- c) Berrerabilera:** sustatuko da argitaratutako informazioa berrerabiltzeko moduko formatuetan argitaratzea, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legean eta hori garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Arlo nagusiak

Eibarko Udalaren Gardentasunaren web atalak -zeina Gipuzkoako Foru Aldundiko *Gipuzkoa Irekia* plataforma barruan kokatuta dagoen- informazio-arlo nagusi hauek ditu:

- **Antolaketa, plangintza eta ondarea**
- **Arauek eta garrantzi juridikoa duen informazioa**
- **Ekonomia, Finantzak, Aurrekontuak eta Estatistika**
- **Goi kargudunak eta arduradunak**
- **Herritarrekiko harremanak**
- **Ingurumena**
- **Kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak**
- **Proiektuak eta lanak**



Gardentasunaren mikrositearen sorrera

2016-2019 Komunikazio Estrategian jasotzen den bezala, Eibarko Udalak bere Gardentasunaren Ataria du (Gipuzkoako Foru Aldundiko *Gipuzkoa Irekia* plataforma barruan kokatua) 2015eko uztailaren 15etik. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da atal espezifiko bat sortzea (udal webak orain duena baino es) landuagoa eta erakundearen web orriaren barruan izaera propioa izango duena. Horrela, **Gobernua Zabalik: gardentasuna, parte hartzea eta datu irekiak** izenburua duen mikrositea sortzea proposatzen da.

Webgune berriak ondo bereizitako **hiru atal** izango ditu:

1.- Gardentasuna: Orain arte bezala, helburua da udal jarduerari buruzko informazio guztia -zeina interes handikoa den hiritarrentzat- era zuzen eta eskuragarrian txertatzea, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzkoak, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (47-66 art.) ezarritako betekizunen arabera, eta Publizitate Aktiboaren printzipioa bete eta Euskadiko Udalen Elkartek, EUDELeK, gardentasunaren garapenerako ezarritako sailkapen-eskema jarraitzea. Behin mikrosite berria sortuta, *Gipuzkoa Irekia* plataforman argitaratutako edukiak automatikoki kargatuko dira udal webean sortuko dugun berariazko atal horretan.

Atal honek izango dituen arlo nagusiak *Gipuzkoa Irekia* plataformak dituenak bezalakoak izango dira:

- 1.1. Goi kargudunak eta arduradunak
- 1.2. Antolaketa, plangintza eta ondarea
- 1.3. Herritarrekiko harremanak
- 1.4. Informazio ekonomiko-finantzarioa
- 1.5. Kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak
- 1.6. Hirigintza eta obra publikoak
- 1.7. Ingurumena
- 1.8. Arauak eta garrantzi juridikoa duen informazioa

- **Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea:** Gardentasunaren atalaren bigarren blokean zehatz-mehatz azalduko dugu nola eska diezaioketen hiritarrek Eibarko Udalari informazio publikoa eta zein den sortutako prozedura. Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzkoak, 17. artikuluan eta hurrengoetan arautzen du pertsonak duten eskubidea administrazio publikoaren esku dagoen informazioa, bere aplikazio-eremuan, eta bere funtzioen jardunean sortu edo eskuratu dena bilatu eta eskatzeko. Horretarako, Eibarko Udalak:

- Aurrerago (E-Udala proiektua martxan jartzean), “**Informazio publikoa eskuratzeko**” izapide elektronikoa sortuko du udal webaren Egoitza Elektronikoan, zeinetan eskuratzeko eskubidea baliatzeko informazioa ematen den: modua, tramitazio epeak eta informazio publikoa eskuratzeko eskabideak ebazteko eskumena duten organoak.
- Eskabideak hilabeteko epean ebazteko konpromisoa hartzen du, eta informazioa eskuratzeko ukatzen duten ebazpenak arrazoitzeko, kasua bada.

2.- Parte hartzea: herritarren parte hartzeak politika publikoen emaitzak hobetzen laguntzen du, eta baita bizi kalitatea, ongizatea eta hiritarren garapen pertsonala ere. **Gobernua Zabalik**



kontzeptuaren baitan dagoenez, mikrosite horren barruan atal espezifiko bat sortzea proposatzen da, bertan gure herrian partaidetza osatzen duten alde guztiek lekua izan dezaten. Horrela, esate baterako, gaur arte egindako hainbat **partaidetza prozesuri** buruzko informazioa, zein etorkizunean burutuko diren beste hainbesteri buruzkoa jasoko da eta baita egin diren **auzoetako bilerei** buruzkoa ere. Azpiatal bat ere izango du **oharrak, kexak edota iradokizunak** adierazteko. Halaber, atal honek Udala lantzen ari den **Informazioa, Gardentasuna eta Herritarren Parte Hartzearen** ordenantzaren inguruko informazioa jasoko du.

3.- Datu irekiak: Administrazio publikoak kudeatzen dituen datuak, era ireki eta berrerabilgarrian, herritarren esku jartzea esan nahi du. Edonork aztertu, berrerabili eta zabaldu ditzake datu horiek, eta datu horietatik eratorritako zerbitzu berriak sortu.

Datu irekiek ez dute ez egile-eskubiderik, ez patenterik, ez bestelako kontrol-mekanismorik. Pertsona batek edo erakunde batek munduaren mutur batean argitara ditzake datuak eta beste pertsona batek beste muturrean datu horiek irakurri. Eibarko Udalak *Gipuzkoa Irekia* plataforman argitaratuta ditu hainbat *dataset* (datu-multzoa). IZFEk kudeatzen duen plataforman argitaratutako datuak automatikoki argitaratuko dira gure webgunean, eta gauza bera gertatuko da gardentasuneko katalogoko edukiekin. Gainera geure edukiak sortzeko eta aldian-aldian argitaratzeko aukera izango dugu.

Datu irekien erabilerak helburu nagusi hau du: herritarrek nahiz enpresa pribatuek, datu publikoetan oinarrituz, gizartearentzat erabilgarri diren eta balio erantsia emango duten produktuak eta zerbitzuak sortzea.

Administrazioaren datu publikoak erabiliz, zerbitzu edo produktu berri bat sortu nahi duen edonori zuzenduak daude datu irekiak.

4.- Albisteak: Azkenik, mikrosite berri honen orri nagusian atal espezifiko bat sortuko da, eta bertan gardentasun-arloan Udalean sortzen diren gaurkotasun-albisteak, open data eta herritarren parte hartzea jasoko dira. Hor argitaratzen diren berriak automatikoki udal web-orriaren "Albisteak" atalean azalduko dira. Horrela, zabalkunde handiagoa emango zaio gardentasun arloan egindako lanari eta herritarrei edukietara iristeko erraztasuna emango zaie.

Dena dela, proiektu hau martxan jartzeko hainbat jarraipen-bilera egingo dituzte komunikazio-teknikariak -edo komunikazio eta gardentasun talde osoak- eta webgune berria garatzeko ardura duen Codesyntax enpresako teknikoei.

Helburua/k: udal gardentasunaren inguruko komunikazioa hobetzea eta online bidezko komunikazio eraginkorragoa sortzea.

Hizkuntza: euskara eta gaztelania.

Arduraduna/k mikrositea sortzeko: Codesyntax eta komunikazio eta gardentasun taldea

Edukien arduradunak: Udaleko sail, zerbitzu edota unitate guztiak

Editatzailea eta edukien gainbegiralea: komunikazio-teknikaria

Lanketa eta inplementazioa: 2017

Komunikazioa: gardentasunaren mikrosite berriaren zabalkundea egiteko prentsa-oharra idatziko da eta prentsaurrea antolatuko da, zeinetan alkatea eta Gobernu Zabalik Ordezkaritzaren arduraduna egotea aurreikusten den. Halaber, hedabideen aurrean interes handiena duten edukiak eta alderdi teknikoak azaltze aldera, webgune berria garatu duen Codesyntax enpresako kideak eta Udaleko komunikazio-teknikaria ere bertan azalduko dira. Udal web-orrian ere albisteak argitaratu eta Facebook eta Twitterreko kontu orokorretan partekatuko dugu.



6. Sortu eta argitaratu beharreko Publizitate Aktiboko edukiak

Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzkoak, behartzen gaitu **erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa** (6. art.), **garrantzi juridikoko informazioa** (7. art.) eta **ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa** (8. art.) argitaratzera.

Bestalde, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, gehixeago sakontzen du publizitate aktiboaren betebeharretan, eta, 50. artikulutik aurrera, bete beharreko publizitate aktiboaren printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta eskueran jarri beharreko informazio publikoa zehazten du: **erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa**. (52. art.), **informazio juridiko-normatiboa** (53. art.), **tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa** (54. art.), **kudeaketa publikoari buruzko informazioa** (55. art.), **toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa** (56. art.), **informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa** (57. art.) eta **interes orokorreko informazioa** (58. art.).

Eibarko Udalak hitzematen du, orain arte bezala, etengabe eguneratutako informazioa argitaratzen jarraituko duela *Gobernua Zabalik* izeneko mikrositean gizarteari kontuak emateko. Udalean lanean jarraituko dugu edukien diseinuak eta egiturak erraz dezaten informazioa eskuratzea, irakurtzea, ulertzea eta berrerabiltzea. Aurreko puntuan aipatu dugun bezala, espazio berean jasoko da *Gardentasuna*, *Datu Irekiak*, *Parte hartzea* eta *Lankidetzza publiko-pribatuari* buruzko informazioa.

Gardentasunaren alorrean zortzi informazio-arlo antolatu dira gure Gardentasunaren Atarian. Horietako bakoitzean, egituratuta argitaratzen dira erakundeak hartutako gardentasun-konpromisoak -zeinak proiektu honen 9. idazpuruan kontsulta daitezkeen- eta etorkizunean hartuko direnak.

Goi kargudunak eta arduradunak

Atal honek hautetsiei buruzko informazioa jasotzen du: urteko ordainsariak, curriculum vitae, harremanetarako datuak, ondasun-aitorpenak, eskubideak eta bateraezintasunak; eta konfiantzako pertsonalari buruzko informazioa (behin-behinekoa), besteak beste.

Antolaketa, plangintza eta ondarea

Bigarren atal honek hiriari eta udalari berari buruzko informazioa eskaintzen du eta baita udal gobernuko organoei, beren funtzioei eta betetzen dituzten pertsoneri buruzkoa.

Halaber, Udalaren administrazio egitura azaltzen du, udal patronatuak eta udal enpresak, funtzioak, organigrama (argitaratzeke), udal langileen plantilla, Udalaren eta erakunde deszentralizatuen lanpostuen zerrenda, udal sail eta zerbitzuen eginkizunak, lan-eskaintza publikoa eta baita Udalaren ebazpen judizialak ere.

Bestalde, Udal langileei eta erakunde deszentralizatuei ezarritako hitzarmenari buruzko informazioa eta Eibarko Udalak eta udal erakundeek okupatutako edo haiei atxikitutako higiezin propio eta alokatuen zerrenda jasotzen da.



Udal planak (Agintaldi Plana eta Plan Estrategikoa), eta programak eta Udaleko sail eta zerbitzuetan eginda dauden kudeaketa memoriak ere jasotzen dira.

Herritarrekiko harremanak

Atal honetan jasotzen da herritarrentzako informazioa eta arreta, herritarren kexa eta iradokizunak, aurrekontuari egindako alegazioak eta zuzenketak, tramite eta zerbitzuei buruzko informazioa, irabazi-asmo bariko elkarteen erregistroa, auzoko bilerak, Udalaren prezio publikoak, tasak eta zergak, kultur eta kirol establezimenduen ordutegiak eta prezioak, sare sozialak, udal webguneak, trafikoaren egoera, etab.

Halaber, atal honek honako hauek izan beharko ditu: Udalak dituen Zerbitzuen Kartari buruzko informazioa, tramitazio egoera, herritarrek eskatutako prozedura administratiboen gorabeherak, zerbitzuen katalogo orokorra, prozedura administratiboen katalogoa, herritarren asebetetzea neurtzeko inkesten emaitzak, eta baita ordezkartza duten talde politikoei beren iritzia edota proposamenak adierazteko atala. Alkatearen agenda instituzionala ere jasoko du.

Gune honek, oro har, herritarren parte hartzearekin zerikusia duten bestelako kontu batzuk ere bildu beharko ditu: araudia, memoriak, herritarren elkarteen zerrendak, herritarren inkesten emaitzak, edo Gardentasunaren Plana edo Estrategia.

Informazio ekonomiko-finantzarioa

Gaur egun, eduki hauek jasotzen dira: Eibarko Udalaren, udal patronatuen, enpresa eta fundazioen aurrekontuak; horien onarpena, aldaketak, hiru hilez behingo betearazteak, eta aurrekontuen iraunkortasun- eta egonkortasun-txostena.

Halaber, aurrekontuko likidazio datuak, udal zorra, adierazle ekonomiko-finantzarioak, eta urteko kontuen auditoriaren azken kanpo-txostena jasotzen dira.

> Udal aurrekontuak erakusteko web atariaren sorrera

Udal aurrekontuak formatu labur, bisual eta ulergarrian erakustea abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzkoak, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (47. artikulutik 66.era) ezartzen duten betekizunetako bat da.

Proposatzen dugun ekintza honen helburua Eibarko Udalaren aurrekontuen bistaratze intuitiboa da, aurretiko esperientziarik ez duten pertsonak ulertzeko modukoa, baina, era berean, gehiago sakontzeko interesa duten pertsonentzat aurrekontuaren elementu bakoitzaren xehetasunak eskuragarri eginik. Proiektuak aurrekontua bere osotasunean erakusten du, bai diru-sarreraren alderdia, bai gastuena, eta aurreikusitako zenbatekoak zein betearazpenekoak (informazioa eskuragarri badago).

Aplikazioak aurrekontuan sartutako gastuen programak erakutsiko ditu, hierarkikoki antolatuta politikatan eta gastu-arloka, hobeto ulertzeko. Aurrekontuetako gastua hiru ardatz edo dimentsioren arabera sailkatzen da: programaka (“zertan gastatzen da?”), sailkapen ekonomikoa (“nola gastatzen da?”) eta sailkapen organikoa (“nork gastatzen du?”).



Aplikazioak, lehenengo, aurrekontuen laburpen bat erakutsiko du, funtzioka sailkatuta, eta xehetasun mailara jaitsita, gastu politikak lau arlo handitan banatuta.

Diru-sarrerak bistaratzea

Bestalde, aplikazioak aurrekontuan aurreikusitako diru-sarrerak bistaratuko ditu, gastuekin egiten dugun bezala, horrela, errazago ulertzeko zein neurritan eusten dioten Foru Funtzaren tasek, tributuek eta diru-sarrerak udal jarduerari. Aurrekontuak bistartzeko lehenengo sailkapen ekonomikoa erabiliko dugu, herritarrarentzat intuitiboagoa baita. Herritarrarentzat, gainera, interes handiagoa du sarreraren kontzeptua ezagutzeak jaso eta kudeatzen duen erakundea ezagutzeak baino.

Aurrekontua versus betearaztea

Aurrekontu publikoak, definizioz, izango diren diru-sarreraren eta gastuen kalkulua dira. Informazio hori baliagarria eta garrantzitsua da, baina aurrekontu betearazpenaren datu errealak erakutsi ahal izatea ere oso baliotsua da: bai diru-sarreraren aldetik, bai gastuen aldetik. Sortuko den aplikazioa prestatuta egongo da aurrekontuen aurreikuspenak zein aurrekontu betearazpenaren datu errealak erakusteko denboran zehar (erabilgarri egon bezain laster).

Informazioa berrerabiltzea

Aplikazioaren helburuetako bat herritarrei edo interesdunei aurrekontu datuen analisia erraztea da. Webak eskaintako bistaratzeek galdera posible askori erantzuten diete, baina garrantzitsua da eskaintzen diren datuak erraz esportatzeko modukoak eta berrerabilgarriak izatea. Horretarako, aplikazioak informazioa formatu ireki eta berrerabilgarrietan deskargatzeko aukera emango du, Open Data (Datu Irekiak) mugimenduaren irizpideak jarraituz.

Erabilitako teknologiak

Aplikazioa web teknologia berriekin eta gailu mugikorrekin bateragarriak direnekin garatuko da (HTML5, CSS3 eta Javascript, D3.js zehazki) eta ez jabetza duten osagaiekin, hala nola Flash. Kode guztia kode ireki gisa askatuko da, ezagutza partekatua kultura sustatzeko eta geroko garapena eta mantentzea errazteko.

Eskalabilitatea

Aplikazioa denboran zehar agertzen diren aurrekontu datuak gehitzeko gai izango da. Beraz, aplikazioa plataforma bizia izango da eta bertan aurrekontu datu historikoen bilakaera erakutsiko da.

Errendimendu eragozpenik ez izateko, eta orriak erabiltzaile guztientzat berberak direla aprobeztatuta, aplikazioak 'caching' teknikak erabiliko ditu intentsiboki; horrela, erabiltzaileak eskatutako orriak azkar eta baliabide gutxi erabilita zerbitzatuko ditu, konplexuak izan arren..

Sare Sozialak

Webak bistaratze garrantzitsuenak (aurrekontu pertsonalizatua) 2.0 plataforma batzuetan - Twitter eta Facebook, besteak beste- partekatzeko baliabideak izango ditu.



Helburua/k: Kanpo komunikazioa hobetzea edo horren alde egitea; udal gardentasunari buruzko komunikazioa sustatzea eta tokiko hedabideetan eta hedabide orokorretan gehiagotan agerraraztea.

Hizkuntza: euskara eta gaztelania.

Arduraduna/k: Kontu-hartzailetza, Alkatetza eta Komunikazioa

Lanketa eta implementazioa: CIVIO Fundazioa (2017 martxo-uztaila)

Komunikazioa: aplikazioa abian jartzearen publizitatea egiteko prentsaurreko bat antolatuko da (Aldi berean, prentsa-oharra prestatuko da xehetasun guztiak adierazteko), eta bertan CIVIOko ordezkariak, Eibarko Udalean ordezkari politikoak duten kargudunak (alkatea, Gobernu Zabalik ordezkariaren arduraduna, Ekonomia eta Ogasuneko zinegotzia...) eta udal teknikariak (kontu-hartzailea, komunikaziokoa...). Aldi berean, aurkezpenaren berri emango dugu bai udal web-orrian, bai erakundearen sare sozialetan.

Kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak

Gaur egun, Kontratatzailearen Profileen Eibarko Udalak, udal patronatuek eta udal enpresek egindako kontratuak argitaratzen dira.

Kontratazio prozesu osoa erakutsi eta prozesuaren faseak eta horietako bakoitzari dagokion dokumentazioa argitaratzen du:

- Kontratazio pleguak eta kontratazio mahaien bileren aktak -dokumentazio administratiboa eta teknikoa eta kontratu bakoitzaren eskaintza ekonomikoa irekitzeari buruzkoak-.
- Eskaintzen sailkapenaren udal dekretuak. Enpresa lizitatuzaileen eskaintza guztiak argitaratzen dira eta horietako bakoitzak lortutako puntuazioa, baldintza teknikoaren pleguetan ezarritako esleipen irizpideak kontuan hartuta.
- Kontratuak esleitzeko udal dekretuak, enpresa esleipenduna eta esleipenaren zenbatekoa adierazita.
- Formalizatutako kontratuen aldaketak.
- Kontratua bertan behera uztea edo kontratuari uko egitea.

Gainera, azken urteetan egindako lizitazioen historikoa argitaratzen da.

Kontratatzailearen Profila honako informazio hau ere ematen du:

- Kontratazio-organo bakoitzaren kontratazio mahaiak osatzen dituzten kideak.
- Organo bakoitzarekin kontratazioa egiteko barne instrukzioak.
- Prozedura irekiaren bidez eta negoziatutako prozeduren bidez egindako hitzarmenen estatistikak eta baita kontratazio prozedura bakoitzaren arabera esleitutako kontratuek aurrekontu bolumenenari dagokionez hartzen duten ehunekoa. (Egiteke)



- Hornitzaileen eta kontratisten zerrenda eta zenbateko garrantzitsuenak.
- Udalak, udal patronatuek eta enpresa publikoek egindako kontratu txikiak.

Eibarko Udalak *Kontratazio Publikoa Euskadin* plataformarekin interkonexioan lan egiten du, abenduaren 9ko 20/2013 Legeak, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoak, hirugarren xedapen gehigarrian dioena betez, lizitazioen deialdiak eta emaitzak automatikoki gehitzeko.

Bestalde, atal honetan, izenpetutako hitzarmenen eta mandatuen zerrenda azaltzen da eta baita udal laguntzen eta diru-laguntzen zerrenda ere.

Hirigintza eta obra publikoak

Eibarko Udalak ahalegin berezia egin beharko du ondorengo edukiak eguneratu eta txertatzeko:

- Herri-lanak: abian dauden obrak eta amaitutakoak. Hainbat informazio txertatu beharko da atal honetan: enpresa lizitatzailleak, enpresa esleipendunak, esleipenaren zenbatekoak, aldaketak, urbanizatzeko lan handienak egindako enpresen izenak, enpresa lizitatzaillearen zerrenda eta udalerrian egindako obren jarraipena eta kontrola.
- Hirigintza hitzarmenak
- Hirigintza planteamendua
- Udalaren hirigintzako kudeaketaren arloan indarrean dagoen araudia
- Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) eta bere onarpenetik egindako aldaketak (Argitaratzeke dauden aldaketak)
- HAPO zehazten duten mapak eta planoak (Argitaratzeke)
- Lurzoruaren erabilera eta xedearren plan partzialak (Argitaratzeke)
- Martxan dauden hirigintza proiektuen zerrenda (egonez gero)

Ingurumena

Gaur egun, atal honek 2011ko urtarrilaren 14ko Gobernu Batzarrak onartutako Zarata Mapari buruzko informazioa baino ez du jasotzen.

Horrez gain, eta ahal den neurrian, ondorengo edukiak sartu beharko dira:

- Ingurumen politikak eta programak, eta jarraipen txostenak (Egonez gero).
- Paisaia eta ingurugiro-inpaktuari buruzko azterketak eta ingurugiroaren osagaiei dagozkien arrisku-ebaluazioak (Egonez gero).



Arauk eta garrantzi juridikoa duen informazioa

Azken atal honetan aginte-organoetan (Gobernu Batzarra, Udalbatza...) onartutako akordioei buruzko informazioa argitaratzen da, Udalbatzaren bideo eta audio-grabazioak, Udalaren ebazpen judizialak, udal araudia (ordenantza fiskalak eta udal ordenantzak, bandoak, araudia jendaurrean...), etab.

Beste eduki batzuk: web atalak, datu irekiak eta informazio publikoa eskuratzea

1. Web atalak

Argitaratu eta eguneratutako Udalaren gardentasun konpromisoak hainbat gunetan erakusten dira:

- *Gipuzkoa Irekia* plataforman
- Udal web-orriko *Gobernua Zabalik* mikrositean
- Udal sail bakoitzak bere gaien inguruan garatutako gunetan

2. Datu irekiak

Gaur egun, *Gipuzkoa Irekia* plataformaren barruan formulario bat dago, eta horren bitartez herritarrek adierazten dute zein datu edo informazio nahi duten Udalak argitaratzea, gardentasun arloan hobetzeko.

Eibarko Udalak urrats bat aurrera egin du gardentasunean eta informazioaren berrerabileran, herritarrekin partekatzen diren datu-multzoak argitaratzean.

Helburu nagusiak hauek dira:

- Datuak formatu irisgarri, berrerabilgarri eta elkarreragingarrietan argitaratzea, berrerabiltzailearen jarduera errazteko.
- Sail eta zerbitzuetan, dagokien informazioa makinek irakurtzeko moduko formatuetan sortzeko tresnen erabilera sustatzea.
- Beste administrazio, erakunde eta herritar batzuekin elkarlanean aritzea informazioa berrerabiltzen lagunduko duten datu-multzo komunak garatzeko.
- Enpresa eta erakundeek gure datu irekiak berrerabiltzeko baldintzak ezartzea eta, hala badagokio, ordainarazpenen ezarpena eta berrerabileraren eskusibotasuna arautzea.
- Informazio publikoko gure katalogoa plataforma komunen barruan sartzea lankidetzeta eta berrerabilera sustatzeko.
- Eibarko Udalak eskaintzen dituen datu-multzo guztiak, kontraktorik esaten ez bada, Creative Commons-Reconocimiento (CC-by 3.0 ES) lizentziaren baldintzapean



argitaratzen dira, eta onartzen dute: datuak kopiatu eta jendaurrean banatu eta komunikatzea; edo datu horiek nahastea/eraldatzea; edo merkataritzarako erabiltzea.

- Udal web-orriaren 'Lege oharra' atalak dioena betetzea www.eibar.eus

Datu-multzo hauek hirugarrenek (herritarrek, enpresek, erakundeek...) erabil ditzakete, eta balio erantsia duten informazio produktu eta zerbitzuak sortu:

- Datuak erraz ulertzeko moduan aurkezteko.
- Udal gobernuaren kudeaketa ebaluatzeko.
- Gizartearentzat baliagarri diren aplikazio elektronikoen garapena errazteko.
- Beste udal erakunde batzuekiko elkarreragintasuna hobetzeko.

3. Informazio publikoa eskuratzea

Bestalde, "Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko" formularioa argitaratzen du, zeinarekin herritarrek informatzeko duten eskubidea (19/2013 Legean eta apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan, jasotakoa) erabil dezaketen. Laster, mikrosite berria martxan jartzen denean, informazio publikoa eskatzeko tramite elektronikoa jarriko da udal webgunean.



7. Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea

7.1. Kontzeptua

Informazio publikoa eskuratzea da herritarrek erakunde publiko bati haren kudeaketari buruzko edonolako informazioa eskatzeko duten eskubidea eta erantzun egokia eta agiriz hornitua jasotzekoa. Eskubide honek, printzipioz, edozer eskuratzeko baimena ematen du, gardentasunari buruzko legediak berariaz salbuesten duena izan ezik.

Informazio publiko dira Eibarko Udalaren eta hari lotuta dauden edo haren mendekoak diren erakunde publikoen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean sortu edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.

19/2013 Legeak eskubide hau bere bi alderdietan arautzen du; alde batetik, pertsonak duten eskubidea jardura publikoa ezagutzeko funtsezkoa den informazioa bilatu eta eskatzeko, eta bestetik, administrazioak duen obligazioa informazio hori emateko edo, bere kasuan, informazio eskubidea mugatzeari buruzko erantzun arrazoitua jasotzeko. Ebazpen horren kontra administrazio bidea eta bide judiziala erabili ahal izango dira.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko, legeak prozedura administratibo bat arautzen du; prozedura hori interesdunaren eskariz hasiko da, eskatutako informazioa duen administrazio organoaren aurrean.

Eibarko Udalak legea betez:

- Sistema bat ezarri du herritarren informazio eskaeren kudeaketa barne antolaketaren funtzionamenduan sartzeko, eta lehendik zeuden prozedurak eta aplikazioak egokitu egin ditu.
- 30 egunen epean ebazteko konpromisoa hartzen du eta, hala badagokio, informazioa eskuratzeko partzialki edo osorik ukatzeko arrazoiak adierazteko.
- Udalaren webak eskuratzeko eskubidea erabiltzeko behar besteko informazio eskaintzen du: modua, tramitazio epeak eta informazio publikoa eskuratzeko eskabideak ebazteko eskumena duten organoak.
- "Informazio publiko eskuratzeko" izapide elektronikoa sortuko du udal webeko Egoitza Elektronikoan.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez, hauek ez dira informazio publikotzat joko:

- Eibarko Udalaren zerbitzu eta prozedura administratiboetarako buruzko informazio orokorra. Adibidez: harrera orduak, deialdiak, diru-laguntzak, hautaketa-prozesuak, besteak beste. Informazio hori udal web-orrian (wgeneral ww.eibar.eus) dago eskuragarri, baita PEGORAn ere. PEGORA Herritarren Zerbitzurako Bulegoa da, eta bertan, aurrez aurre atendituko zaituzte. Telefonoz ere dei dezakezu, 010 edo 943708400 zenbakietara, edo, bestela, bitarteko elektronikoak erabilita.
- Interesdun edo eragindako alderdi zaren espediente edo prozedura jakin bati buruzko informazioa. Adibidez: eskatutako diru-laguntza emango dizuten, espediente baten



tramiteen egoera, etab. Informazio hori udal web-orrian (www.eibar.eus) dago eskuragarri, baita Herritarren Zerbitzurako Bulegoan ere, PEGORAn. Bertatik, espedientea tramitatzeko ardura duen atalera bidaliko zaituzte, hala dagokionean.

Eskubide honetatik kanpo daude berez hirigintzari buruzkoak edo horrekin lotutako kontsultak eta Udal Artxiboan egiten diren informazio- eta agiri-kontsultak.

Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak:

Informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, informazio hori eskuratzeko honako hauei kalteren bat eragiten badie:

- Segurtasun nazionala; defentsa, Kanpo-harremanak, segurtasun publikoa.
- Zigor-, administrazio- edo diziiplina-arloko egintza ez-zilegien prebentzioa, ikerketa eta zigorra.
- Prozesu judizialtako aldean berdintasuna eta benetako babes judiziala.
- Zaintza, ikuskaritza eta kontroleko funtzio administratiboak.
- Interes ekonomiko eta komertzialak. Ekonomia- eta moneta-politika.
- Sekretu profesionala eta jabetza intelektual eta industrialak.
- Erabakiak hartzeko prozesuetarako beharrezko konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.
- Ingurumenaren babesa.

Mugak xedearen eta babes-helburuaren arabera izango dira, eta kontuan hartuko da kasu jakin bakoitzaren egoera, bereziki, informazioa eskuratzeko justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiagorik ote dagoen.

Muga hauez gain, babes bereziko beste suposizio batzuk daude:

Datu pertsonalak babestea (Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa):

- Eskatutako informazioak ideologia, sindikatuko bazkidetza, erlijio edota sinesmenari buruzko datuak izanez gero, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berriazko idatzizko baimena izatea; dena dela, ez da baimen hori behar izango, baldin eta, eskuratzeko eskaera egin baino lehen, eragiten zaion horrek datuak ageri-agerian ezagutzera eman baditu.
- Informazioak arraza, osasun edota sexu-bizitzari buruzko datuak edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragindakoaren berriazko baimena edukitzea edo lege-mailako arauen baten babesa izatea.



- Oro har, organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak jasotzen dituen informazioa eskuratzeko baimena emango da, salbu eta ezin bada ezagutarazi, informazioa ezagutzera ematearen interes publikoari datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babestutako beste eskubideren bat gailentzen zaiolako.
- Eskatutako informazioak ez duenean datu bereziki babesturik, informazioa eskuratzeko baimenduko da, informazioa ezagutarazteak daukan interes publikoa eta eskatutako informazioan ageri diren datuen jabeen eskubideak (bereziki datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea) behar bezala aztertu eta kontuan hartuta. Erabaki hori hartzeko, bereziki kontuan hartuko dira irizpide hauek:
 - Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikulua ezarritako epeak igarotzeak eragindakoei ahalik eta kalte txikiena eragitea.
 - Eskatzaileek justifikatzea beren eskaera eskubide batez baliatuta egiten dutela edo ikerlariak direla eta informazioa helburu historiko, zientifiko edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela.
 - Eragindakoen eskubideei ahalik eta kalte txikiena egitea, dokumentuetan haiek identifikatzeko datuak bakarrik badaude.
 - Eragindakoen eskubideak ahalik eta gehien bermatzea, dokumentuko datuek haien intimitatean edo segurtasunean eragina izan badezakete, edo adingabekoei buruzkoak badira.

Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

Informazioa eskuratzeko eskubidearen eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen arteko talkari buruzko informazio guztia DBEBn (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa) dugu, berariaz legearen inplementazio egokirako argitaratzen den kontsulta laburpenean.

Jabetza intelektual:

- Proiektu teknikoak eta antzeko dokumentazioa Udalarekin zerikusirik ez duten pertsonak edo erakundeek egindakoak edo sortutakoak badira osorik edo nagusiki, jabetza intelektualaren eskubideak babesten ditu; beraz, dokumentazio horren kopiarik ez zaio emango hirugarren bati jabearen berariazko baimenik gabe. Baldin eta egitasmo teknikoak edo antzeko dokumentazioa osorik edo zati handi batean Udala ez den beste erakunderen batek eginak badira, jabetza intelektualaren eskubidearen babespean daude, eta, beraz, ez zaio dokumentazioaren kopiarik emango hirugarren bati, ez badu jabeak berak baimena propio ematen.

Informaziora sartzeko eskabideak ez onartzeko kausak:

Ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako eskabide hauek:

- Egiteko bidean edo argitaratzeko bidean den informazioari buruzkoak.
- Informazio osagarriari edo laguntzarako informazioari buruzkoak; esate baterako,



halako informaziotzat hartzen da, oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan,

barne komunikazio eta txostenetan edo organo edo erakunde administratiboen arteko komunikazio eta txostenetan jasotakoa.

- Hedatzeko, aldez aurretik, berriro prestatzea behar duten informazioari buruzkoak.
- Informazioa ez dagoenean eskaera jaso duen organoaren esku eta ez dakigunean nor daukan horren eskumena. Kasu honetan adierazi behar da zein den Udalaren ustez eskumena duen organoa.
- Argi eta garbi errepikakorrak direnak edo neurritz kanpokoak direnak, lege honen gardentasun helburuarekin justifikatu ezin direnak.

Informazioaren forma edo formatua: Ahal dela, bide elektronikoz eskuratuko da informazioa, salbu eta ezin denean hala eskuratu edo eskatzaileak berariaz beste modu batez eskuratzeko adierazi bada. Informazioa dagoeneko argitaratua izan bada, zilegi izango da ebazpenean informazio hori non eskuratu daitekeen besterik ez adieraztea.

7.2. Prozedura administratiboa

Eibarko Udalak honako prozedura hau ezarri du informazio publikoa eskuratzeko eskabideak tramitatzeko:

Eskabidea egitea

Interesatuak informazio publikoa eskuratzeko eskabidea aurkeztuko du, behar bezala beteta.

Interesatuak 3 tramitazio-kanal hauek erabili ahal izango ditu:

- **Elektronikoki:** Langileria eta Antolaketa sailera zuzendutako sarrera-erregistroa automatikoki egiten da.
- **Postaz:** Sarrera-erregistroa Estatistikatik egiten da eta Langileria eta Antolaketara sailera zuzentzen da. Ondoren, PEGORARA (Herritarren Zerbitzurako Bulegoa) bidaltzen da beste bidalketekin batzeko.
- **Aurrez aurre:** PEGORAK dokumentazioa zuzena dela egiaztatzen du:
 - Baldintzak ez baditu betetzen edota dokumentazioa falta bada, ez da eskaera onartuko.
 - Dena zuzena bada, Langileria eta Antolaketara zuzendutako sarrera-erregistroa egingo da, ziurtagiria emango zaio interesatuari eta dokumentazioa Idazkaritzara bidaliko da (bidalketa sorta edo remesa).

Eskaerak aztertzea

Langileria eta Antolaketa arduradunak eskabidea aztertuko du eta baloratuko du ea egoera hauek gertatzen diren:

- Eskatutako informazioa dagoeneko argitaratuta dago (bat etorri edo ez eskatutako



formatuarekin).

- Eskatutako informazioa ez dago udalaren esku, baina badakigu zein den eskumena duen organoa.

Kasu batean zein bestean, informazio-eskaera eta sortutako dokumentuak Gardentasun Batzordera bidaliko dira e-mailez.

Halako egoerarik ez badago, Langileria eta Antolaketaren arduradunak eragindako sail, unitate edo zerbitzuetara bidaliko du eskaera; horretarako, gehienez ere 3 laneguneko epea emango zaie eskaera aztertu, balorazio-txostena bete eta, hala badagokio, eskatutako txostena prestatzeko. Era berean, eskaera e-mailez bidaliko du Gardentasunaren Batzordera, jakinaren gainean jartzeko.

Jakinarazpena egitea

Ondoren, Langileria eta Antolaketako administrariak beharrezko jakinarazpenak egingo ditu.

Balorazio-txostena egitea

Eragindako sail, unitate eta zerbitzuen arduradunek eskabidea aztertuko dute eta balorazio-txostena beteko dute. Txostena aldekoa bada, eskatutako informazio-dokumentazioa prestatuko dute, ahal dela interesatuak eskatutako formatuan.

Kasu guztietan, Langileria eta Antolaketaren arduradunari bidaliko zaio balorazio-txostena beteta, eta, hala dagokionean, eskatutako informazio-dokumentazioa.

Balorazioak aztertzea

Langileria eta Antolaketaren arduradunak sail, unitate eta zerbitzuek bidalitako balorazio-txostena edo txostenak aztertuko ditu, eta, beharrezkoa bada, Gardentasunaren Batzordeari bidaliko dio dokumentazioa e-mailez, eta bilerarako deia egingo du.

Balorazioan sail, unitate eta zerbitzuek bidalitako balorazio-txostenak aztertu eta hauek egiaztatuko dira:

1. Ea ez onartzeko arrazoirik dagoen ala ez:

- Eskatutako informazioa prestatzen ari dira edo argitaratzeko bidean dago.
- Eskatutako informazioa osagarritzat edo lagungarritzat jotzen da (oharrak, zirriborroak, iritziak, laburpenak, jakinarazpenak administrazio organoen arteko komunikazioak edo barne-txostenak).
- Eskatutako informazioa jendaurrera eman aurretik birlandu egin behar da.
- Eskatutako informazioa behin eta berriz eskatu da edo gardentasunak ez du justifikatzen neurrigabeko eskaerarik egitea.
- Informazioa ez dago zuzendutako organoaren esku eta ez dakigu zer erakundek duen eskumena halako eskaera bideratzeko.



2. **Ea beharrezkoa den harremanetan jartzea informazio-eskatzailearekin edo hirugarrenekin, eskaera ebatzi ahal izateko.**
 - Eskaerak ez badu behar beste identifikatzen informazioa, eskatzailearekin harremanetan jarri beharko da eskaera zehaztu dezan.
 - Eskatutako informazioak eragin ahal badie egoki identifikatutako hirugarrenen interes edo eskubideei, eskatzaileari edo haren legezko ordezkariari horren berri eman behar zaio. Era berean, 15 eguneko epea eman behar zaie identifikatutako hirugarrenei, egoki irizten dituzten alegazioak aurkezteko.
 - Eskatutako informazioa udalaren esku izanik ere osorik edo zati handi baten beste batek sortu edo landutakoa bada, eskatzailea edo haren legezko ordezkaria jakinaren gainean jarri beharko da eta eskaera informazio-egileari bidali beharko zaio, eskuratzeari buruzko erabaki bat har dezan.
3. Aurreko kasu bat bera ere egon ezean, eskuratu ahal izango da informazioa. Beharrezkoa izango da eskuratzeari baimentzen duen dekretua egitea.

Idatziak egitea

Kasuaren arabera, Gardentasunaren Batzordeak honako zeregin hauek egin beharko ditu:

- Eskaerak ez du behar beste identifikatzen informazioa: zehaztapen-errekerimendua landu eta sinatu, non 10 eguneko epea emango zaion eskaera zehazteko; hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Era berean, adieraziko zaio aldi horretan eten egiten dela ebazpena emateko epea.
- Eskatutako informazioak eragin ahal die egoki identifikatutako hirugarrenen eskubide edo interesei: jakinarazpena landu eta sinatu ohartaraziz eskatzaileari edo haren legezko ordezkariari eragindako hirugarrenak daudela, eta, adieraziz, alegazio-epeen barruan eten egiten dela ebazpena emateko epea. Era berean, identifikatutako hirugarrenei zuzendutako jakinarazpena landu eta sinatu, informazio publikoa eskuratzeko eskaeraz ohartaraziz eta alegazioak aurkezteko aukera emanez 15 eguneko epean.
- Eskatutako informazioa udalaren esku izanik ere osorik edo zati handi batean beste batek landutakoa da: egileei zuzendutako jakinarazpena landu eta sinatu, informazio publikoa eskuratzeko eskaeraz ohartaraziz; jakinarazpenarekin batera eskaera joango da, egileek eskuratzeari buruzko erabakia har dezaten.

Jakinazpena egitea

Jarraian, Langileria eta Antolaketako administrariak beharrezko jakinarazpenak egingo ditu.



Dokumentazioa aurkeztea

Herritarrak 3 kanal izango ditu eskaeraren zehaztapena, alegazioak etab. aurkezteko:

- **Telematikoki:** sarrera-erregistroa automatikoki egiten da eta dokumentazioa zuzenean iristen da Langileria eta Antolaketara.
- **Postaz:** Estatistikak egiten du Langileria eta Antolaketara zuzendutako sarrera-erregistroa. Ondoren, PEGORARA bidaltzen du dokumentazioa, beste bidalketekin batzeko.

Epeari dagokionez, bi kasu daude, dokumentazioa epe barruan edo epez kanpo aurkeztea

- **Aurrez aurre:** PEGORAK egiten du sarrera-erregistroa eta Langileria eta Antolaketari (bidalketa sorta) bidaltzen dio dokumentazioa.

Alkatetzaren ebazpena egitea

Gardentasunaren Batzordea bildu egingo da, hala badagokio, dokumentazioa, aurkeztutako alegazioak... aztertzeko eta ebazpena lantzeko.

Ebazpena burutu ondoren, Alkatetzara bidali, eta, beharrezkoa bada, dagokien sail, unitate eta zerbitzuei jakinarazi, dokumentazioa-informazioa presta dezaten.

Alkatetzaren ebazpena sinatzea

Alkatetzak espedienteko dokumentazioa berrikusiko du eta sinatu beharreko ebazpena kontsultatuko du:

- **Ebazpena ZUZENA bada** dokumentazioa sinatu eta Idazkaritzara bidaliko du.
- **Ebazpena EZ bada ZUZENA,** oharrak egin eta dokumentazioa itzuliko du Gardentasunaren Batzordera.

Ebazpenaren jakinarazpena egitea

Idazkaritzako administrariak alkatetzako ebazpenaren jakinarazpena edo jakinarazpenak sortuko ditu eta Idazkariari bidaliko dizkio.

Ebazpenaren jakinarazpena sinatzea

Idazkariak espedientea berrikusiko du eta ebazpenaren jakinarazpena kontsultatuko du:

- **Dokumentua ZUZENA BADA,** sinatu egingo du eta administrariari itzuliko dio.



- **Dokumentua EZ BADA ZUZENA** oharrak idatziko ditu eta administrariari itzuliko dio.

Jakinarazpena egitea

Langileria eta Antolaketako administrariak ebazpenaren jakinarazpena edo jakinarazpenak sortuko ditu.

Informazioa eskuratzeko eskubidea

Informazioa osorik eskuratu ahal izango da edo zatiren bat, eta ahal izanez gero, bide elektronikoen bidez eskuratuko da, baldin eta ezinezkoa ez bada edo eskatzaileak beste bideren bat adierazi ez badu.

Informazioa ezin bada eskura jarri ebazpenaren jakinarazpena egiten den unean, eman beharko da, edonola ere, ebazpenean ezartzen den epean.

Ebazpenean adierazitakoaren arabera, tasak ordaindu behar direnean kopiak egin direlako edo eskatutako informazioa jatorrizkoa ez den formatu ezberdin batera pasatu behar izan delako, ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztea eska liteke eskatutako informazioa eskuratzeko.

Artxibatzea

Azkenean, Langileria eta Antolaketako administrariak espedientea artxibatuko du. Dokumentazioa gordeko da sorta dokumentala baloratu eta xahutzen den arte.

7.3. Ohar gehigarriak

Gardentasunerako Batzordea: lan-talde bat da; haren partaideak dira Gobernu Zabalik Ordezkaritzako arduradun politikoa, udal idazkaria, Langileria eta Antolaketako arduraduna eta Komunikazio eta Gardentasuneko teknikaria. Batzordearen eginkizun nagusia da bai informazio publikoa eskuratzeko jaso diren eskaerak bai sail, zerbitzu eta unitateen arduradunek egindako balorazio-txostenak aztertzea eta ebazpena egitea. Beharrezkoa denean, Batzorde honek Udalaren sail, unitatea edo/eta zerbitzuen lankidetzara eskatu ahal izango du; baita erakunde autonomo independenteena ere.

7.4. Beste alderdi batzuk:

- Lehen aldiz sortu dira prozedura eta aipatutako dokumentuetako batzuk, antolaketako udal teknikariaren lankidetzarekin. Ez dakigunez zenbat eskaera jasoko diren, erabaki da beharrezko izango diren oinarritzko dokumentuak sortzea eta hurrengo bertsio baterako lagatzea gainontzeko dokumentuen sorrera.
- *Informazio publikoa eskuratzeko* izeneko fitxategia sortu da eta baita hari dagokion deklarazioa Datu Pertsonalen Babeserako Euskal Agentziaren aurrean.
- Legediak honako hau dio: "Informazioa dagoeneko argitaratua izan bada, zilegi izango da ebazpenean informazio hori non eskuratu daitekeen besterik ez adieraztea.". Halaber, zera adierazten du: "Arrazoituak izango dira... eskatutako modalitatearen bidez barik beste modu batez eskuratzeko baimentzen duten ebazpenak". Tramitazio-prozedura eraginkorra



izan dadin eta herritarrei erantzun azkarra emate aldera, Gardentasunerako Batzordeak erabaki du informazioa dagoeneko argitaratua dagoen kasuetan (eskatutako formatuan zein besteren batean) eskatzaileari zuzenean jakinaraziko zaiola nola eskuratu dezakeen informazioa, prozedura guztia ebazpenaren bitartez tramitatu beharrik izan gabe.

- Tasei dagokienez, ez dago tasarik dokumentazioa eskaneatzeagatik. Tramiteak hasi dira dokumentuak egiteagatik ordaindu beharreko tasak 2017. urtean aldatzeko. Ordaintzeko prozedura ezarri edo aldatuko da beharrezkoa denean Kontu-hartzailletza eta Diruzaintzarekin.
- Espedienteen artxiboei dagokienez, dokumentazioa gordeko da dokumentu sorta baloratu eta xahutzen den arte.
- Orobat, kontuan hartu behar dira Gardentasunerako eta Gobernu Onerako kontseiluak ezartzen dituen interpretazio-irizpideak. Gaur egun honako irizpide hauek daude argitaratuta:
 - **3/2016 IRIZPIDEA:** Informazioa eskuratzeko eskabideak ez onartzeko arrazoiak. Informazio-eskaera errepikakorra edo neurritz kanpokoak.
 - **2/2016 IRIZPIDEA:** Ordezkarri politikoei dagozkien agendei buruzko informazioa.
 - **1/2016 IRIZPIDEA:** Informazioa eskuratzeko eskabideari isiltasunagatik ezetsitzat jo izanagatik Kontseiluaren aurrean erreklamatzeko.
 - **9/2015 IRIZPIDEA:** Organo edo unitatearen jarduna, publizitate aktiboaren helburu den informazioa eskatzen denean.
 - **8/2015 IRIZPIDEA:** Informazioa eskuratzeko eskubidearen erregulazio bereziaren inguruko Lehenengo Xedapen Gehigarriaren aplikazioa.
 - **7/2015 IRIZPIDEA:** Zabalkundea egiteko berriro prestatzea eskatzen duten informazio-eskabideak ez onartzeko kausak.
 - **6/2015 IRIZPIDEAK:** Informazio-eskabideak ez onartzeko kausak: informazio osagarria edo lagungarria.
 - **5/2015 IRIZPIDEA:** Informazio konplexu edo tamaina handikoen gaineko eskaeren aurreko jarduna.
 - **4/2015 IRIZPIDEA:** NANeko datuei eta eskuz egindako sinadurari buruzko publizitate aktiboa.
 - **3/2015 IRIZPIDEA:** Erakunde pribatuen gardentasun-betebeharren norainokoa.
 - **2/2015 IRIZPIDEA:** Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugen aplikazioa.
 - **1/2015 IRIZPIDEA:** Estatuko sektore publikoaren betebeharrak, LPZ eta ordainsarien inguruko informazioa emateko.

7.5. Kudeaketa-adierazleak, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidearen asebetetzeari buruzkoak

Tipologia	Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak
Jasotako informazio-eskabideen kopurua	Jasotako informazio-eskabideen kopuru osoa
	Aurrez aurre/bide elektronikoen bidez jasotako informazio-eskabideen ehunekoa (%)
	Pertsona fisiko/juridikoengandik jasotako informazio-eskabideen ehunekoa (%)
	Emakume/gizonengandik jasotako informazio-eskabideen ehunekoa (%), sexuaren aldagaia barne hartzen duten informazio-eskabideen kopuru osoarekiko
	Eibarren bizi diren/ kanpokoak diren pertsona fisiko edo juridikoengandik jasotako informazio-eskabideen ehunekoa (%)
	Erantzuna jasotzeko euskara/gaztelania lehentasunezko hizkuntza gisa aukeratu duten informazio-eskabideen ehunekoa (%)
Emandako erantzunen kopurua	Emandako erantzunen kopuru osoa
	Bide elektronikoen bidez emandako erantzunen ehunekoa (%)
Jasotako eskabideen eta emandako erantzunen arteko erlazioa	Emandako erantzunen ehunekoa (%), jasotako eskabideekiko.
	Erantzun gabeko informazio-eskabideen ehunekoa (%) jasotako eskabideen kopuru osoarekiko, informazio-eskabidetzat jo ez direlako (benetan kexak, iradokizunak... dira)
	Erantzun gabeko informazio-eskabideen ehunekoa (%) jasotako eskabideen kopuru osoarekiko, DPBL urratuko luketelakoan.
	Erantzun gabeko informazio-eskabideen ehunekoa (%) jasotako eskabideen kopuru osoarekiko, hirugarren batzuen interesen kontraktatzat jo direlako. Erantzun gabeko informazio-eskabideen ehunekoa (%) jasotako eskabideen kopuru osoarekiko, Udala, erakunde deszentralizatua, ente instrumentala edo udal sozietatea ez delako erakunde egokitatzat jotzen planteatutako gaiak erantzuteko.

Tipologia	Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak
Erantzunaren maila	Erantzun osoarekin emandako erantzunen ehunekoa (%)
	Erantzun partzialarekin (eskatutako informazioaren %50 edo gehiago) emandako erantzunen ehunekoa (%)
	Erantzun partzialarekin (eskatutako informazioaren %50 baino gutxiago) emandako erantzunen ehunekoa (%)
	%100ean euskaraz emandako erantzunen ehunekoa (%), erantzuna jasotzeko euskara lehentasunezko hizkuntza gisa aukeratu duten pertsonen kopuru osoarekiko
Lan honi eskainitako denbora	Eskainitako ordu kopuru osoa
	Eskainitako batez besteko denbora (orduak) emandako erantzun bakoitzeko
Jasotako eskabideen eta emandako erantzunen arteko erlazioa	Eskubidearen edukiari buruz, eskubideaz baliazko bideei buruz eta haren mugei buruz, Gardentasunaren Atarian eskaintzen den aurreinformazioaren argitasunarekiko asebetetze maila.
	Kontsulta egitean eta hura tramitatu bitartean jasotako arretaren kalitatearekiko asebetetze maila
	Erantzunaren kalitatearekiko asebetetze maila.
	Kexen ehunekoa (%) informazioarekin emandako erantzunekiko.



7.6. Gardentasunaren urteko Memoria-Txostena

Urtean behin, Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidearen asebetetzearen inguruko urteko txosten edo memoria egingo dugu. Txosten hori, gainera, Gardentasunaren Urteko Memoriaren parte izan beharko da eta Udalaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da, apirilaren 7ko 2/2016 LEGEAK, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 66. artikuluan ezartzen duen bezala.

Urteko txosten edo memoriaren edukia hauxe izango da:

- **Jasotako eskabide kopurua**
- **Eskabide horien banaketa (%), hauen arabera:**
 - Entitate mota: pertsona fisikoa /pertsona juridikoa
 - Adina, sexua (pertsona fisikoen kasuan), hizkuntza
 - Eskabidea jaso den urte sasoia (hilabeteka)
- **Eskabide mota, hauen arabera:**
 - Eskaeraren esparru tematiko nagusia
 - Udaleko zein sailletara zuzendua den
- **Onartu ez diren eskabideen kopurua eta haien ehunekoa, jasotako eskabide guztiekiko.**
- **Eskabideak ez onartzeko arrazoiak (%)**
- **Erantzuteko epeak**
 - Legezko epetik kanpo emandako erantzunen ehunekoa (%)
 - Udalaren barne konpromisotik kanpo emandako erantzunen ehunekoa (%)
 - Erantzuteko batez besteko epea (baldin eta datu hori erraz lortu badaiteke)
- **Zerbitzuarekiko asebetetze maila (baldin eta asebetetze-inkestaren bat egiten bada)**

8. Gardentasunaren kudeaketa

Udal Gardentasunaren proiektua etengabeko hobekuntza-prozesu batean sartuta dago; hori dela eta, haren metodologia PDCA zikloan oinarritzen da.



Gardentasunaren PDCA zikloak 4 fase ditu:

- **Diagnostikoa**
- **Estrategia edo/eta Hobekuntza plana diseinatzea**
- **Estrategiaren / Hobekuntza Planaren ezarpena**
- **Estrategiaren / Hobekuntza Planaren ebaluazioa**

Halaber, udalaren gardentasunaren kudeaketa zuzen bat egiteko, Eibarko Udaleko zein patronatu eta udal enpresa publikoetako sail, zerbitzu eta unitateekin prozedura bat adostuko da, zeinarekin erraztuko den informazioaren eguneratze-prozesu etengabea, informazioa udal web-orrian argitaratzeko.

Hedadura:

Udaleko, patronatuetako eta udal enpresa publikoetako sailak, zerbitzuak eta unitateak:

- Beren eragin-esparruan dagozkien proiektu honen **gardentasun-konpromisoen koadro orokorrean definitutako datu eta adierazleen arduradun izango dira.**
- **Eduki espezifikoak egin eta igorriko dituzte** udal web-orrian argitaratzeko; haiek izango dira edukien egiazkotasunaren eta baliozkotasunaren arduradun eta beteko dituzte eguneratzealdiak, adostutako formatu eta txantiloiak eta informazioaren publikazio-indarraldiak.
- Eibarko Udalaren **informazioaren edukia hobetuko dute**, herritarrentzat argia eta ulergarria izan dadin .
- Datuak **formatu berrerabilgarrietan** argitaratzea sustatuko dute.



Udaleko Gardentasun eta komunikazio lantaldea:

- Informazioa eguneratzeko prozedura honen ezarpena eta jarraipena koordinatuko du udal sail, zerbitzu eta unitateekin.
- Udal web-orriko edukiak egokituko ditu erakundearen zerbitzuek eta sailek aldian-aldian bidalitako informazioarekin. Webeko edukia diseinatuko du eta mantentze-lanak egingo ditu argitaratutako informazioaren gardentasuna hobetze aldera.
- Konpromiso ezberdinetako informazioaren eguneratze aldiak betetzen direla gainbegiratu eta kontrolatuko du.
- Sei hilean behingo ebaluazio txostenak egingo ditu, Udalbatzari edo/eta Zuzendaritza Topagunea (ZT) zuzendarien komiteari emateko.
- Udal web-orriko Gardentasun-atalerako sarreraren gaineko informazio estatistikoa bilduko du.



9. Udal Gardentasunerako konpromisoak

Gardentasunaren gakoetako bat eman beharreko informazioa gaurkotua egotea da.

Eman behar den informazioa gaurkotua egoteak kontrol lana eskatzen du. Lan hori errazteko Eibarko Udalak Aginte Koadro edo Gardentasunerako konpromisoen koadro orokor bat du egina. Bertan erakundeak bere webeko atal desberdinetan argitaratzea erabaki duen informazio guztia jasotzen da. Aginte koadro hori gardentasuneko edukien sortzea eta gaurkotzea kudeatzeko tresna izateko sortu da.

Konpromisoak biziak izango dira. Hau da, aldatu ahal izango dira edota berriak ezarri, erakundeak berak, herritarrek edota gizarteak orokorrean hala iradokiz gero.

Zerrendan jasotzen dira Gardentasunaren, Informazio publikoa eskuratzearen eta Gobernu Onaren 19/2013 Legeak eta 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak ezartzen dituzten gardentasun betebeharrak.

Konpromisoen taula orokorraren egitura

Konpromisoen taula honako zutabe hauetan egituratu da:

- **Jarduera eremuak:** konpromisoen gaikako sailkapena, argiago ulertu ahal izateko.
- **Gaikako azpiatalak:** gaikako arlo bakoitzeko barne sailkapena..
- **Garatu beharreko ekintza zehatzak:** Udalak hartutako gardentasun konpromisoaren definizioa
- **Lehentasun maila:** Ezarritako edukiak argitaratzearen garrantzi mailari dagokio. Sailkapen honetan alde batetik gaur egungo araudian derrigorrez eskatu ahal direlako aurrera eraman beharrekoak diren ekintzak jasotzen dira (1 maila), eta bestetik legalki derrigorrez eskatu ezin diren ekintzak aurrera eramateko zailtasunaren edo erraztasunaren arabera sailkatzen dira (2 eta 3 mailak) duelako.
1 maila: Gardentasun Legea indarrean sartzearekin batera eskatu daitekeena
2 maila: Erraz egiteko modukoa. Epe motz-ertainean egitea gomendatzen da.
3 maila: Zailtasun handiagokoa. Epe ertain-luzean aurrera eramatekoa.
- **Ardura duen udal arloa:** Konpromiso bakoitza lantzeko ardura duen arlo edo zerbitzua.
- **Eguneratze maiztasuna:** konpromisoaren arduradun diren arlo edo zerbitzuek komunikazioko eta gardentasuneko udal teknikariarekin eta Langileria eta Antolaketa Zuzendariarekin koordinaturik informazioa zein maiztasunekin eguneratuko duten.



Konpromisoen edukia

Konpromisoak honako **informazio alorretan** banatuta daude:

- 1. Hautetsiak eta konfiantzazko karguak**
- 2. Langileria eta udal antolaketa**
- 3. Herritarrekiko harremana**
- 4. Udal plangintzak**
- 5. Informazio ekonomiko-finantzarioa**
- 6. Efizientzia eta eraginkortasuna kudeaketan**
- 7. Kontratazioa**
- 8. Hirigintza eta herri lanak**
- 9. Open Data (Datu irekiak)**
- 10. Udal araudia eta akordioak**
- 11. Parte hartze gardena**
- 12. Gardentasunarekiko konpromisoa, hedapena eta komunikazioa**

Arlo batzuek biltzen duten adierazle/informazioaren tamaina dela-eta, informazio-azpiatalak sortu dira.



UDAL GARDENTASUNA KUDEATZEKO AGINTE TAULA

JARDUERA ARLOAK	GAIKAKO AZPIATALK		NOLA - GARATU BEHARREKO EKINTZA ZEHATZAK	LEHENTASU N MAILA	NORK - ARDURA DUEN UDAL ARLOA	EGUNERATZE MAIZTASUNA
1.Hautetsien eta konfiantzazko karguen gaineko gardentasuna	1.1. Hautetsien gaineko informazioa	1.1.1	Hautetsien zerrenda argitaratu eta eguneratu	1	Idazkaritza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		1.1.2	Hautetsien funtzioen fitxak argitaratu eta eguneratu	1	Idazkaritza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		1.1.3	Hautetsien kontakturako datuak argitaratu eta eguneratu	1	Alkatetza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		1.1.4	Hautetsi berrien curriculum vitaeak sartu (berririk egonez gero)	1	Alkatetza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		1.1.5	Hautetsien ondasunen deklarazioa argitaratu eta eguneratu	1	Idazkaritza	Urtero (Hautetsi berriak sartzean)



	1.1.6	Hautetsien urteko ordainsarien gaineko informazioa argitaratu eta eguneratu.	1	Pertsonal eta Antolaketa	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
	1.1.7	Karguak uzteagatik jasotako kalte-ordainak argitaratu.	1	Ez dago	Gertatzen den bakoitzean
	1.1.8	Gobernu Onaren eta Interes Gatazken Bulegoak (edo antzekoak) kargudunek egin ahal dituzten jarduera pribatuen bateragarritasunaz emandako ebazpenak argitaratu.	1	Ez dago	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
	1.1.9	Talde politikoen gaineko informazioa argitaratu.	2	Alkatetza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
	1.1.10.	Organo aholku-emaile eta partaidetza sozialekoen gaineko informazioa argitaratu, euren jarduera eta akordioak ere jasota.	2	Alkatetza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
	1.2. Konfiantzako o pertsonalare	1.2.1	Konfiantzako pertsonalaren zerrenda argitaratu eta eguneratu, bai udalekoa, bai udal entitateetakoa.	1	Alkatetza



	n gaineko informazioa	1.2.2	Konfiantzazko pertsonalaren funtzioen gaineko informazioa argitaratu eta eguneratu	1	Alkatetza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		1.2.3	Konfiantzazko pertsonalaren urteko ordain-sariak argitaratu eta eguneratu	1	Pertsonal eta Antolaketa	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		1.2.4	Konfiantzazko pertsonalaren curriculum vitae berriak sartu (berririk egonez gero)	1	Alkatetza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		1.2.5	Konfiantzazko pertsonalak karguak uzteagatik jasotako kalte-ordainak argitaratu.	1	Ez dago	Kasu hau gertatzen den bakoitzean
2. Udaleko pertsonalaren eta antolaketaren gaineko gardentasuna.	2.1. Udaleko langileak eta antolaketa	2.1.1	Udal organigrama argitaratu eta eguneratu	1	Pertsonal eta Antolaketa	Urtean behin
		2.1.2	Udal gobernurako organoak zeintzuk diren argitaratu eta eguneratu eta baita haien funtzioak ere (Udalbatzaren osaera, talde politikoak eta Gobernu Batzarra)	1	Idazkaritza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		2.1.3	Udal arlo eta zerbitzuen funtzioak argitaratu eta eguneratu.	1	Arlo eta zerbitzu guztiak	Urtean behin
		2.1.4	Organo deszentralizatuen, erakunde instrumentalen eta udal sozietateen oinarriko datuak eta euren web guneetarako loturak argitaratu eta eguneratu	2	Idazkaritza / Pertsonal eta Antolaketa	Aldaketa bat dagoen bakoitzean



	2.1.5	Udal Lanpostuen Zerrenda (LZ) argitaratu eta eguneratu.	2	Pertsonal eta Antolaketa	Urtean behin
	2.1.6	Organo deszentralizatuen, erakunde instrumentalen eta udal sozietateen Lanpostuen Zerrenda (LZ) edo langile plantillak argitaratu eta eguneratu.	1	Pertsonal eta Antolaketa	Urtean behin
	2.1.7	Udal plantillaren arlokako eta zerbitzuko banaketa argitaratu eta eguneratu.	2	Pertsonal eta Antolaketa	Urtean behin
	2.1.8	Organo deszentralizatuen, erakunde instrumentalen eta udal sozietateen plantillen arlokako eta zerbitzuko banaketa argitaratu eta eguneratu.	2	Pertsonal eta Antolaketa	Urtean behin
	2.1.9	Udaleko pertsonalari aplikatutako hitzarmena argitaratu eta eguneratu.	2	Pertsonal eta Antolaketa	Urtean behin
	2.1.10	Organo deszentralizatuei, erakunde instrumentalei eta udal sozietateei aplikatutako hitzarmena argitaratu eta eguneratu..	2	Pertsonal eta Antolaketa	Urtean behin



	2.1.11	Higiezin zerrenda argitaratu eta eguneratua, propioak direnak edo alokairu erregimenean okupatuak daudenak edota udalari eta udal entitateei atxikiak daudenak..	1	Idazkaritza / Kontu-hartzaitza	Urtean behin
	2.1.12	Udalari eta udal entitateei atxikiak dauden ibilgailu ofizialen kopurua (propioak edo alokatuak) argitaratu eta eguneratu.	2	Idazkaritza / Kontu-hartzaitza	Urtean behin
	2.1.13	Udalarenak diren balio artistiko-historikodun edota balio ekonomiko handiko ondasun higigarrien zerrenda argitaratu eta eguneratu.	2	Idazkaritza / Kontu-hartzaitza	Urtean behin
	2.1.14	Udalaren eta udal entitateen ondasunen eta eskubideen inbentarioa argitaratu eta eguneratu	2	Idazkaritza / Kontu-hartzaitza	Urtean behin
	2.1.15	Lan eskaintza publikoa, haren garapena eta betetzea argitaratu.	2	Pertsonala	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
	2.1.16	Udalaren ebazpen judizial garrantzitsuenak argitaratu.	2	Idazkaritza	Urtean behin
	2.1.17	Emandako ikastaro eta formazio programen gaineko informazioa argitaratu.	2	Antolaketa eta Pertsonala	Urtean behin
	2.1.18	Sindikatu ordezkaritza organoak osatzen dituzten kideen gaineko informazioa, liberatuta	2	Antolaketa eta Pertsonala	Aldaketa bat dagoen bakoitzean



3. Gardentasuna herritarrekiko harremanean		dagoen kide kopurua eta duten ordu kreditua argitaratu.				
	2.1.19	Bateragarritasun deklarazio gaietan eskuduna den organoaren ebazpenen gaineko informazioa argitaratu.	2	Idazkaritza	Aldaketa bat dagoen bakoitzean	
	3.1. Harremana herritarrekin	3.1.1	Udal webgunearen mapa argitaratu eta eguneratu.	2	Informatika	Aldaketa bat dagoen bakoitzean
		3.1.2	Dauden udal zerbitzu kartak eta beraietan eztaarritako konpromisoen betetze maila argitaratu eta eguneratu.	1	Ez dago	Zerbitzu karta berri bat egiten den bakoitzean
		3.1.3	Herritarrek planteatutako prozedura administratiboan intzidentziak eta tramitazio egoera argitaratu eta eguneratu.	2	e-administrazioa ezartzearekin	Hilero
		3.1.4	Herritarrek egindako kexen kopurua, ezaugarriak eta iradokizunak argitaratu eta eguneratu.	2	Zerbitzuak	Urtean behin
		3.1.5	Herritarrei egindako asebetetze inkestak emaitzak (kuantitatiboak eta kualitatiboak) argitaratu.	2	Alkatetza	Urtean behin
	3.1.6.	Udal webgunean Gardentasun Ataria sortu.	1	Antolaketa eta Pertsonala	Urtean behin	
	3.1.7.	webean erraz ikus daitekeen barne bilatzaile bat dago.	1	Informatika, Antolaketa eta Pertsonala	Urtean behin	



	3.1.8.	Herritarrek edo erakundeek egindako galderen gaineko informazioa argitaratu (gutxienez jasotako eta erantzundako galdera kopurua)	3	Alkatetza	Urtean behin	
	3.1.9.	Zerbitzu orokorren katalogoa argitaratu, hala nola udal egoitzen zerbitzuak, ekipamenduak, helbideak, arreta ordutegiak, webetarako loturak eta e-posta helbideak.	2	Antolaketa eta Pertsonala	Urtean behin	
	3.1.10.	Administrazio prozeduren, helburuen, izapideen, epeen katalogo gaurkotua argitaratu, administrazio-isiltasunaren esanahia definitu, eta bide elektronikoz tramitatu daitezkeen inprimakiak zehaztu.	3	Antolaketa eta Pertsonala	Urtean behin	
	3.1.11.	Udal webean gune bat prestatu ordezkariak duten formazio politikoek euren iritziak eman eta proposamenak egin ahal ditzaten.	3	Informatika, Komunikazioa...	Urtean behin	
	3.2. Herritarrentz ako informazioa eta arreta	3.2.1	Prezio publikoak, tasak eta udal zergak argitaratu eta eguneratu.	2	Kontu-hartzailak	Aldatzen diren bakoitzean
		3.2.2	Udal establezimendu kulturalen eta kirolerakoen ordutegiak eta prezioak argitaratu eta eguneratu.	2	Kultura / Kirolak	Aldatzen diren bakoitzean



		3.2.3	Trafikoaren egoeraren edota arazoaren informazioa edota udal zerbitzuetako intzidentzien gaineko informazioa webean argitaratu eta eguneratu.	2	Udaltzaingoa, Antolaketa eta Pertsonala...	Etengabe
		3.2.4	Ingurumenaren egoeraren gaineko informazio eguneratua (airearen kutsadura, eta kutsadura akustikoa) webean argitaratu.	2	Ingurumena	Etengabe
		3.2.5.	Alkatearen agenda instituzionala argitaratu (webeko atal berezi batean).	3	Alkatetza, Antolaketa eta Pertsonala	Etengabe
4.Gardentasuna udal plangintzan	4.1. Agintaldiko Plana	4.1.1	Agintaldiko Plan osoa argitaratu.	1	Alkatetza, Gobernu Irekiko ordezkaria	Egiten denean
		4.1.2	Agintaldiko Plan laburtua argitaratu.	2	Alkatetza, Gobernu Irekiko ordezkaria	Egiten denean
		4.1.3	Agintaldiko planaren jarraipen txostena argitaratu eta eguneratu.	1	Ez daude	Urtean behin
	4.2. Beste udal eta programa batzuk	4.2.1	Udal Plan Estrategiko osoa eta laburtua argitaratu.	1	Hirigintza	Egiten denean
		4.2.2	Sektorekako udal plan berriak osorik eta laburturik argitaratu.	1	Arlokakoak: Sail bakoitzak	Egiten direnean



5. Gardentasuna informazio ekonomiko-finantzarioan (*) (*) Atal honetan jasotako adierazleak herritarrentzat informazio ekonomiko-finantzario ulergarria aurkezteko gomendioetan		4.2.3	Aipatutako plan eta programen jarraipen txostenak argitaratu eta eguneratu.	1	Arlokakoak: Sail bakoitzak	Urtean behin
		4.2.4.	Zerbitzuen prestazioari buruzko inkestaren emaitzak argitaratu (inkestarik egin ez bada, berariaz adieraziko da webgunean)	3	Alkatetza-Antolaketa eta Pertsonala	Urtean behin
		4.2.5.	Finantzatutako zerbitzuen benetako kostuari buruzko informazioa argitaratu, tasa edo prezio publikoak adierazita	2	Kontu-hartzailletza	Urtean behin
	5.1. Udal aurrekontua	5.1.1	Onetsitako Udal Aurrekontu osoa argitaratu	1	Kontu-hartzailletza	Urtean behin, onartzen denean
		5.1.2	Onartutako Udal Aurrekontua laburbilduta argitaratu	2	Kontu-hartzailletza, Alkatetza, Antolaketa eta Pertsonala (CIVIO aplikazioa)	Urtean behin, onartzen denean
5.1.3		Udalaren Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontuaren aldaketak argitaratu	1	Kontu-hartzailletza (Udalbatzakoak)	Udalbatzan onartzen denean	
5.1.4		Deszentralizatutako erakundearen, erakunde instrumentalen eta udal-sozietateen aurrekontuak argitaratu	1	Kontu-hartzailletza	Urtean behin, onartzen denean	



oinarrituta daude. Gomendio horiek Gardentasuneran zko Ibilbide Orrian agertzen dira eta Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea prestatu du.	5.2. Urteko kontuak	5.2.1	Urteko udal kontuak argitaratu	1	Kontu-hartzailletza	Urtean behin
		5.2.2	Urteko kontuen auditoriaren azken kanpo-txostena eta aurrekoak argitaratu	1	Kontu-hartzailletza	Urtean behin
	5.3. Udal zorra	5.3.1	Udal zorraren egungo egoeraren informazio zehatza argitaratu eta eguneratu	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
5. Gardentasuna informazio ekonomiko-finantzarioan (*) (*) Atal honetan jasotako adierazleak herritarrentzat informazio ekonomiko-finantzarioa ulergarria aurkezteko gomendioetan oinarrituta daude. Gomendio horiek	5.4. Ratio ekonomiko-finantzarioak	5.4.1	Biztanleko diru-sarrera fiskalen ratioa argitaratu eta eguneratu (Zergaren bidezko diru-sarrerak / Biztanle kopurua)	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
		5.4.2	Itxitako azken ekitaldiko pertsona bakoitzeko udal gastuaren ratioa argitaratu eta eguneratu	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
		5.4.3	Biztanleko inbertsio-ratioa argitaratu eta eguneratu {aitortutako obligazio garbiak (VI. eta VII. atalburuak) / Biztanle-kopurua}	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
		5.4.4	Superabitaren (edo defizitaren) biztanleko ratioa argitaratu eta eguneratu (Aurrekontuaren doitutako emaitza / Biztanle kopurua).	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin



Gardentasuneran zko libilbide Orrian agertzen dira eta Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalaren Sareak prestatu du.

5.4.5	Autonomia fiskaleko ratioa argitaratu eta eguneratu (zergaren bidezko diru-sarreraren aitortutako eskubide garbiak / Aitortutako eskubide garbiak guztira).	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
5.4.6	Ordaintzeko batez besteko aldiaren ratioa argitaratu eta eguneratu (ordaindu gabeko obligazioak x 365 / Aitortutako obligazio garbiak)	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
5.4.7	Kobratzeko batez besteko aldiaren ratioa argitaratu eta eguneratu {Kobratu gabeko eskubideak (I.-III. atalburuak) x 365 / Aitortutako eskubide garbiak}	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
5.4.8	Zorraren bilakaerari buruzko datuak argitaratu eta eguneratu, aurreko ekitaldiekin alderatuta	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
5.4.9	Biztanleko zorpetze-ratioa argitaratu eta eguneratu {Pasibo galdagarria (finantzariora) / Biztanle-kopurua}	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
5.4.10	Zorpetze erlatiboko ratioa argitaratu eta eguneratu (Udal Zorra / Udalaren Aurrekontu osoa)	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin
5.4.11	Biztanleko azpiegituretan egindako inbertsioaren ratioa argitaratu eta eguneratu {azpiegituretan inbertitutako (6. atalburua) ekitaldiko gastuak (gauzatuta) / Biztanle-kopurua}	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin



	5.4.12	Hirigintzako sarreren proportzioa argitaratu eta eguneratu: Hirigintzaren ondoriozko sarrerak	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin	
	5.4.13	Hirigintzatik eratorritako gastuen ratioa argitaratu eta eguneratu / Gastuen aurrekontu osoa	2	Memorian agertzen diren ratioak	Urtean behin	
	5.5. Emandako laguntzak eta diru-laguntzak	5.5.1	Azken aldiari emandako udal laguntza eta diru-laguntzen zerrenda argitaratu (zenbatekoa, helburua eta onuradunak)	1	Kontratazioa, Antolaketa eta Pertsonala, (udal-webguneko diru-laguntzen taula)	Etengabe
	5.6. Izenpetutako hitzarmen eta kudeaketa-mandatuak	5.6.1	Azken aldiari izenpetutako hitzarmenen zerrenda argitaratu (izenpetu duten alderdiak, xedea, iraupen-epea, egindako alderdiak, prestazioak egitera derrigortutako alderdiak eta hitzartutako obligazio ekonomikoak)	1	Idazkaritza	Hiru hilean behin
		5.6.2	Azken aldiari izenpetutako mandatuen zerrenda argitaratu eta eguneratu (xedea, aurrekontua, obligazio ekonomikoak eta egindako azpikontratazioak, adjudikatzailerak, adjudikatzeko jarraitutako prozedura eta zenbatekoa aipatuta)	1	Idazkaritza	Hiru hilean behin



6. Gardentasuna kudeaketaren eraginkortasun eta efikazian	6.1. Eraginkortasuna eta efikazia udal zerbitzuen kudeaketan	6.1.1	Udal zerbitzuen kudeaketari buruz dauden azken txostenak argitaratu	1	Udal sail eta zerbitzuak	Urtean behin
		6.1.2	Udal zerbitzuen kostuari buruz dagoen informazioa argitaratu eta eguneratu	2	Ez da existitzen	Urtean behin edo zehazten den maiztasunarekin
7. Gardentasuna kontratazioan	7.1. Udal kontratazioa	7.1.1	Azken kontratazio-mahaien osaera, izendatzeko era eta deialdiei buruzko informazioa argitaratu	3	Kontratatzailearen profila EJ	Kontratazio-mahaiak osatzen diren bakoitzean
		7.1.2	Kontratazio Mahaien Aktak Argitaratu	3	Kontratatzailearen profila EJ	Akta berriak daudenean
		7.1.3	Azken aldiaren formalizatutako kontratuen zerrenda argitaratu (helburua, lizitazioaren eta adjudikazioaren zenbatekoa, prozedura, publizitatea, parte hartu duten lizitatzailen kopurua eta adjudikaziodunen nortasuna)	1	Kontratatzailearen profila EJ	Hiru hilean behin
		7.1.4	Azken aldiaren formalizatutako kontratuetan egindako aldaketak argitaratu	1	Kontratatzailearen profila EJ	Hiru hilean behin
		7.1.5	Kontratuekin atzera egiteko eta uko egiteko erabakiak argitaratu	1	Kontratatzailearen profila EJ	Hiru hilean behin



8. Gardentasuna hirigintza eta herri-lanetan		7.1.6	Azken aldi formalizatutako kontratu txikiak argitaratu, behintzat, erantsita (kontratu-kopurua, guztizko zenbatekoa)	1	Kontratzailearen profila EJ	Hiru hilean behin
		7.1.7	Azken aldi sektore publikoko kontratuen legerian ezarritako prozedura bakoitzaren bidez adjudikatutako kontratuen kopurua eta aurrekontuko bolumenari buruzko datu estatistikoak argitaratu (kontratu irekiak, negoziatuak, kontratu txikiak)	1	Kontratzailearen profila EJ	Hiru hilean behin
	8.1. Hiri Antolamendua	8.1.1	Udalaren hirigintzako kudeaketaren arloan indarrean dagoen araudiari buruzko informazio zehatza argitaratu eta eguneratu	2	Hirigintza	Araudia onartzen denean
		8.1.2	Hiri Antolamendurako Plan Nagusia argitaratu	2	Hirigintza	Onartzen denean
		8.1.3	HAPN planean zehazten diren mapak eta planoak argitaratu	2	Hirigintza	Mapak eta planoak egiten direnean
		8.1.4	Onetsi zenetik HAPN planari egindako aldaketak argitaratu.	2	Hirigintza	HAPN aldatzen denean
		8.1.5	Udalak sinatutako hirigintzako hitzarmenak argitaratu.	2	Idazkaritza	Hitzarmenak sinatzen direnean
		8.1.6	Lurzoruaren erabilerari eta xedeei buruzko plan partzialak argitaratu	2	Hirigintza	Plan partzialak onartzen direnean



	8.1.7	Abian dauden hirigintzako proiektuen zerrenda argitaratu eta eguneratu (garapen-aldiak, abian dauden lanak, kalifikazio aldaketak, hirigintzako hitzarmenak...)	2	Hirigintza	Hiru hilean behin	
	8.2. Herri lanak	8.2.1	Proiektuen zerrenda, eta herri-lanik garrantzitsuenak lizitzeko irizpideak eta pleguak argitaratu eta eguneratu	2	Kontratatzailearen profila EJ	Hiru hilean behin
		8.2.2	Herri-lanik garrantzitsuenen proiektuetan egindako aldaketak argitaratu	2	Obrak	Aldatzen direnean
		8.2.3	Herri-lanen lizitaziora aurkeztutako enpresen zerrenda argitaratu	2	Kontratatzailearen profila EJ	Lizitazio berri bat dagoen bakoitzean
		8.2.4	Hirigintza-lanik garrantzitsuenak egiten dituzten enpresen izena argitaratu	2	Kontratatzailearen profila EJ	Esleipen berri bat dagoen bakoitzean
		8.2.5	Udal obra garrantzitsuenak (500.000 euro baino gehiagokoak) hasteko eta amaitzeko aurreikusitako data zehatzak argitaratu eta eguneratu	2	Obrak	Hiru hilean behin
		8.2.6	Egindako azpiegitura-lanik nabarmenei buruzko informazioa argitaratu eta eguneratu	2	Obrak	Hiru hilean behin



		8.2.7	Egikaritu gabe eta onartuta dauden azpiegiturazko lanei buruzko informazioa argitaratu eta eguneratu	2	Obrak	Hiru hilean behin
		8.2.8	Aribidean dagoen lan bakoitzaren egoerari buruzko informazioa argitaratu eta eguneratu (helburuak, udal arduraduna, kontratugileak, aurrekontua, egikaritzeko aldia)	2	Obrak, Zerbitzuak, Hirigintza	Hiru hilean behin
		8.2.9.	Udalak ingurumenaren arloan dituen politikak eta programak, eta haien jarraipen-txostenak argitaratu.	2	Ingurumena	Hiru hilean behin
		8.2.10.	Ingurumen- eta paisaia-inpaktuei buruzko azterketak eta ingurumeneko osagaiei dagozkien arriskuko ebaluazioak argitaratu	3	Ingurumena	Hiru hilean behin
	9. Open Data	9.1. Datu irekien katalogoa	9.1.1	Formatu irekian eskuragarri dagoen udal informazioaren zerrenda argitaratu eta eguneratu	3	Antolaketa eta Pertsonala
10. Udal araudi eta hitzarmenak	10.1. Udal araudia	10.1.1	Indarreko udal araudi garrantzitsuenak (ordenantzak, ordenantza fiskalak, araudi, dekretuak, estatutuak eta udal bandoak) argitaratu eta eguneratu	1	Udal sail eta zerbitzuak	Araudi berria ateratzen denean
		10.1.2	Tramitatu bitartean jendaurrean jartzeko aldian dauden dokumentuak argitaratu	1	Udal sail eta zerbitzuak	Informazio publikoaren tramitea beharrezkoa denean



	10.2. Gobernu Batzordea	10.2.1	Gobernu Batzarreko akordioak argitaratu	2	Idazkaritza	Gobernu batzordeak akordio bat hartzen duenean
		10.2.2	Gobernu Batzordearen bilera egin aurretik gai-zerrendak argitaratu	2	Idazkaritza	Gobernu Batzordea egiten den bakoitzean
		10.2.3	Gobernu Batzarreko aktak argitaratu.	2	Idazkaritza	Gobernu Batzordea elkartzen den bakoitzean
	10.3. Udal osoko bilkura	10.3.1	Udal Osoko Bilkuraren aurreko gai-zerrendak argitaratu	2	Idazkaritza	Udalbatza egiten den bakoitzean
		10.3.2	Udal Osoko Bilkuraren erabakiak argitaratu	2	Idazkaritza	Udalbatzak akordio bat hartzen duen bakoitzean
		10.3.3	Udalaren Osoko Bilkurako aktak osorik argitaratu.	2	Idazkaritza	Udalbatza egiten den bakoitzean
		10.3.4	Udal Osoko Bilkuraren ikus-entzunezko grabaketak argitaratu	3	Alkatetza, Enpresa, Antolaketa eta Pertsonala	Udalbatza egiten den bakoitzean
11.Parte hartze gardena	11.1. Egituratutako parte hartzea	11.1.1	Herritarrak Parte hartzeko Araudia argitaratu	2	Ez da existitzen	Sortzen edo aldatzen denean
		11.1.2	Barrutietako edo Auzoetako Udal Batzarren osaera eta funtzionamendua argitaratu	2	Ez da existitzen	Sortzen edo aldatzen denean



	11.1.3	Barrutiko Kontseiluen azken aktak argitaratu (Auzo bileretako aktak?)	2	Ez da existitzen	Onartzen direnean
	11.1.4	Parte hartzearen azken memoria argitaratu	2	Alkatetza	Urtean behin
	11.1.5	Herritarren elkarten zerrenda argitaratu eta eguneratu.	2	Alkatetza	Urtean behin
	11.1.6.	Udalaren webgunean eztabaidaguneak edo sare sozialen profilak argitaratu.	2	Antolaketa eta Pertsonala	Urtean behin
	11.2.1	Informazio-aldian aurrekontuari egindako alegazioak eta zuzenketak argitaratu.	2	Kontu-hartzaitza	Urtean behin
	11.2.2	Indarreko araudiaren arabera herritarrek parte hartzeko prozesuak egin behar diren gaietan herritarren ekarpenak argitaratu (ad. Hirigintza)	2	Hirigintza	Parte hartze prozesuak egiten direnean
	11.2.3	Herritarren ekarpenak argitaratu, herritarrek parte hartzeko borondatezko prozesuak egiten diren udal planak eta beste proiektu batzuk aldatzen/prestatzen direnean	3	Egiten direnean	Parte hartze prozesuak egiten direnean



12. Gardentasunare kiko konpromisoa, zabalkundea eta komunikazioa	12.1. Gardentasun arekiko udal konpromisoa	12.1.1	Gobernu Onaren Kodea edota Gardentasunari buruzko barneko araudia (ordenantzak, udal araudiak) argitaratu	2	Ez da existitzen	Sortzen edo aldatzen denean
		12.1.2	Gardentasunari buruzko Estrategia edo Plana argitaratu	2	Antolaketa eta Pertsonala	Sortzen edo aldatzen denean
		12.1.3	Udal gardentasunari buruz herritarrei egindako azken inkestaren emaitzak argitaratu	2	Ez da existitzen	Urtean behin edo egiten direnean
	12.2. Formal kontrolak	12.2.1	Aholkularitza juridikoko eta ikuskaritzako organoen barneko txostenak argitaratu, behin betikoak direnean (horrelako txostenik ez badago, berariaz adieraziko da webgunean).	3	Kontu-hartzailletza	Urtean behin
		12.2.2.	Kontu-ikuskaritza eta/edo fiskalizazioko txostenak argitaratu, baita udalarenak ere	3	Kontu-hartzailletza	Urtean behin

10. Ekintzak eta laborpen-kronograma

EKINTZAK	2017												2018		2019	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	1-6	7-12	1-6	7-12
UDAL GARDENTASUNA																
Gardentasunaren ataria: mikrosite berriaren sorrera																
Publizitate aktiboaren edukiak sortzea, argitaratzea eta eguneratzea																
Informazio Publikoa eskuratzeko eskubidea: prozedura administratiboa sortzea eta eskaerei erantzutea																
Aurrekontuen web-aplikazioa sortzea																
Udalbatzak <i>streaming</i> bidez																
Gardentasuneko memoria edo urteko txostena																
Gardentasuneko eta Komunikazioko lantaldearen jarraipen-bilerak																
Herritarrei eta udal langileei egindako gogobetetze inkestak edota aldizkako bilerak																



Kanpaina informatiboa edota gardentasunari buruzko komunikazioa																			
Pentsurrekoak eta prentsa-deialdiak, prentsa-oharrak...																			
Udal Gardentasunaren Estrategia																			
Udal gardentasuna ebaluatzeko ikerketa, nazioarteko irizpideen arabera (ITA, Dyntra...)																			

OHARRA: 2016-2019 Komunikazio Estrategiaren barruan honako ekintza hauek biltzen dira:

- Udal Gardentasunaren mikrositea
- Aurrekontuen web-aplikazio bat sortzea Gardentasunerako
- Kanpaina informatiboa edota gardentasunari buruzko komunikazioa



11. Aurrekontua

2015eko uztailean Gobernua Zabalik Ordezkaritza sortu zen; bere gain hartzen ditu gardentasuna, komunikazioa, datu irekiak edo *open data* eta herritarren parte hartzea. Proiektu honen diagnosi fasean aurrekontu-sail propio bat izatearen beharra antzeman da, plana onartu ostean aurreikusi daitezkeen jarduerak aurrera eraman ahal izateko.

Jarraian, **Gardentasunaren Estrategia** osatzen duten ekintzen aurrekontua zehazten da:

EKINTZAK	KONTZEPTUA	PREZIOA
Udal aurrekontuen web-aplikazioa	Aurrekontuak erakusteko web atariaren sorrera	12.275,00 € (14.852,75 €)
Kanpaina informatiboa edota gardentasunaren komunikazioa	Liburuxkak, triptikoak edota bestelako euskarriak	5.000 €
Gardentasunaren mikrositea	Web atariaren sorrera	2.047,32 €
Udalbatzak <i>streaming</i> bitartez	Osoko bilkuren emisioak	7.623 €
Bideo-albisteak eta bi ekitaldi <i>streaming</i> bidez	Ekitaldien grabaketak, lanketa eta emisioak	14.036 €
GUZTIRA (2017)		43.559,07 €

OHARRA: Aipatutako jarduerak 2017ko aurrekontuaren 491 programaren barruan kokatzen dira (Informazio Gizartea).



12. Gardentasun egitasmoaren adierazleak

Jarraian, Gardentasun Estrategiaren adierazle orokorrak zehazten dira:

Adierazlearen deskribapena	Maiztasuna
Zenbat eguneko desbideraketa izan den kronograman aurreikusitakotik, proiektuaren mugari ezberdinetan	Hilean behin
Barne mailan egindako komunikazio-ekintza kopurua <ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpenak eta bilerak • Posta elektronikoaren bidezko jakinarazpenak • Etab. 	Hilean behin
Kanpo mailan egindako komunikazio-ekintza kopurua <ul style="list-style-type: none"> • Bidalitako prentsa-deialdi kopurua • Antolatutako prentsaurreko kopurua • Egindako prentsa-ohar kopurua • Udal-webgunean eta sare sozialetan argitaratutako albiste kopurua • Etab. 	Hilean behin
Egindako bilera kopurua	Hiru hilean behin
Epe barruan bukatutako mugarren kopurua	Hiru hilean behin
Proiektua betearazten esku hartu duten sail, zerbitzu edo unitateen kopurua	Urtean behin
Proiektuan esku hartu duten sail, zerbitzu edo unitateen ehunekoa, sail, zerbitzu edo unitate guztien kopuruarekiko.	Urtean behin
Proiektuan emandako orduak	Hilean behin
Proiektuaren dedikazioaren ordu-desbideraketa (zer egin den eta zer zegoen aurreikusita).	Hilean behin
Proiektuan parte hartzen duten pertsonen kopurua	Urtean behin
Gardentasuneko proiektuan esku hartzen duten pertsonen ehunekoa, udal langile eta erakunde autonomoetako langile guztien kopuruarekiko	Urtean behin
Proiektuarekin lotutako prestakuntzan emandako denbora.	Urtean behin
Proiektuaren prestakuntzan emandako denboraren ehunekoa, Udalaren trebakuntza orokorrarekiko	Urtean behin
Erabilitako baliabide errealen kostua.	Urtean behin
Erabilitako baliabideen kostu-desbideraketa (zein erabili diren eta zein zeuden planifikatuta).	Urtean behin
Udaleko langileen gogobetetasun maila proiektuaren garapenari buruz.	Urtean behin



13. Gardentasunaren komunikazioa

Gardentasunak, kudeaketa publikoaren beste esparru batzuk bezala, komunikazio lan garrantzitsu bat inplizituki dakar nahitaez. Herritarrekiko konpromisoa, proiektuak komunikatzea, erakundearen kudeaketaren berri ematea edota hurbiltasuna eta parte hartzea sortzea dira kontuan hartu eta oharkabean pasatu behar ez diren alderdiak.

Gardentasun proiektuaren komunikazioak, halaber, Eibarko Udalaren Komunikazio Estrategia orokorra osatuko du datozen urteotan.

Proiektu honen arrakasta eta inpaktua lortzeko, neurri handi batean, komunikazio- eta zabalkunde-jarduerak behar ditu izan. Komunikazio-ekintzak zehaztu aurretik, beharrezkoa da proiektu honen komunikazioaren helburu estrategikoak eta espezifikoak definitzea, zein publikori zuzendutakoak diren identifikatzea eta zabaldu nahi diren mezuak markatzea.

13.1. Egitasmoaren komunikazioaren helburuak

Helburu estrategikoak

Hauetako dira proiektu honen komunikazioaren eta zabalkundearen helburu estrategikoak:

- Udal Gardentasunaren komunikazioa sustatzea eta hobetzea
- Proiektuaren informazio-fluxua optimizatzea eta komunikazio efizientea antolatzea Udaleko sail, zerbitzu eta unitateen artean
- Proiektuaren berri ematea esku hartzen duten eragile eta onuradun nagusi posibleen artean
- Proiektuan zehar lortzen diren aurrerapenen eta emaitzen berri ematea
- Udalaren barneko zein kanpoko irudia aldatzea eta ikusgai egitea

Helburu espezifikoak

Proiektu hau komunikatzeko zehaztu diren helburu espezifikoak ondorengoak dira:

- Proiektua egoki kudeatzeko eta gauzatzeko beharrezkoa den barne komunikazioa sistematizatzea
- Erakundea bere osotasunean inplikatzeko proiektuaren garapenean eta kudeaketan
- Gardentasun proiektuaren komunikazio eraginkor eta gardena egitea, baita horren barruan biltzen diren ekimenena ere, proiektuan zehar lortutako aurrerapenei eta emaitzei buruzko informazioa zabalduz

13.2. Publikoak

Orokorrak

- Udal langileak, zuzendaritza eta oposizioko taldeak
- Hedabideak



- Herritarrak orokorrean

Bigarren mailakoak

- Erakunde publikoak, unibertsitateak, sindikatuak, ostalaritza eta merkataritza eta herriko elkarteak

13.3. Mezuak

Udal langileei zein herritarrei orokorrean zuzentzeko erabiliko ditugun mezuek **Udalaren 2016-2019 Komunikazio Estrategia orokorrean** zehaztutakoei erantzuten diete:

Mezu estrategikoa

Eibarko Udalean gobernu ona sustatzen ari gara eta efizientzia hobetu nahi dugu baliabide publikoen kudeaketan, baita erakundea osatzen duten pertsonen gogobetetze maila hobetu ere.

Gure bokazioa da Gobernu onaren eta herritarren zerbitzura dagoen erreferente bihurtzea, zuzeneko arreta, baliagarria eta konfiantzazkoa eskaintzen duena; Eibar hiri moderno eta bizitzeko toki hobea izan dadin.

Administrazio konprometitua izan nahi dugu, etikoki eta ingurumena kontuan hartuta jokatzeko duena; sinplifikazio administratiboaren alde egiten duena zein teknologia berrien, komunikazioaren eta herritarren partaidetza sustatzearen alde egiten duena.

Berrikuntzan eta hobekuntzan giltzarri diren pertsonengan arreta jartzen duen erakundea izan nahi dugu, proiektu komun batean garapena eta asebetetzea errazten duten lan esparruak sortuz, baita oreka errespetatuz esparru konpetentzialaren eta ditugun baliabideen artean ere, herritarren lehentasunen arabera.

Hiri jasangarria eraiki nahi dugu, adeitsua, berritzailea, eta herritarren parte hartzearekiko konpromisoa erakusten duena; lurraldearen eta gizartearen garapen orekatu bat jarraitzen dugu, baita herritar guztien bizi kalitatearen hobekuntza iraunkorra ere.

Publikoei egokitutako mezuak

Nagusia

✓ **Udal langileak, zuzendaritza eta oposizioko alderdiak**

Barne komunikazio on, arin eta planifikatuta ezinbesteko erreminta da udal gardentasuna eta 'Eibarko Udala' markaren identitate korporatibo bisuala sustatu eta hobetzeko, eta baita helburu komun baten partaide sentitzeko ere.

✓ **Komunikabideak**

Komunikabideak –orokorrak eta espezializatuak- oinarritzko erreminta dira udal gardentasunari dagokion informazioa zabaltzeko eta, aldi berean, Eibarko Udalaren sail



eta zerbitzu ezberdinetatik sustatu eta herritarrei ezagutarazteko. Eibarko Udala osatzen duten sail eta unitateak, zinegotziak eta oposizioko alderdiak, baita erakunde autonomoak ere, prest daude hedabideei era guztietako materialak, esperientziak eta ezagutzak eskaintzeko eta komunikabideek eskatzen dituzten elkarrizketetan edota erreportajeetan parte hartzeko.

✓ **Herritarrak orokorrean**

Eibarko Udalean prest gaude herritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuen eta jardueren kudeaketa eta antolaketaren alde lan egiteko.

Bigarren mailakoak

✓ **Erakunde publikoak**

Eibarko Udala beti dago prest erakunde desberdinekin lan egiteko (Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jauriaritza, Gobernu zentrala...) eibartarren eta herritar ororen ongizaterako izan daitezkeen gaietan.

Aipatutako erakunde batzuk diru-sarrera nagusiak dira, aurreko urteetan martxan ipinitako proiektu garrantzitsuak aurrera eramateko, bai eta proiektu berriak garatzeko ere.

✓ **Unibertsitateak**

Eibarko Udalean euskal unibertsitateek egiten duten lanarekin identifikatzen gara eta haiekin kolaboratzea da gure nahia behar duten laguntza eskaintzeko. Hala, jakitun gara EAEko (Euskal Autonomi Erkidegoa) unibertsitateekin kolaborazio hitzarmenak sinatzeak daukan garrantziaz Eibarko Udalaren izateko arrazoia indartzeko eta prestigioa emateko.

✓ **Sindikatuak**

Erakundeetan ordezkaritza duten sekzio sindikal guztietara (CCOO, ELA, LAB eta ErNE) zuzenduko da, uneoro, Eibarko Udala, baita, gaur egun ordezkatuta ez daudenetara ere. Helburua da oinarritzko lan ildoak eta udal gobernuaren konpromisoak ezartzen jarraitzea honako alderdi hauetan: enplegu publikoa, lan harremanak, egutegiak, kontziliazioa, lanpostuen hornikuntzarako barne prozesuak, besteak beste.

✓ **Ostalaritza eta merkataritza**

Eibarko Udala hiriko jatetxe, taberna eta merkataritza establezimenduetara zuzenduko da suertatu daitezkeen kolaborazio hitzarmenak lotzeko eta programatutako jardueren arrakasta bermatzeko beharrezko eragileak baitira.



✓ Hiritarren elkarteak

Eibarko Udalak herriko elkarte ezberdinen baldintza gabeko laguntza dauka eta beti prest dago iradokizunei, proposamenei eta sor daitezkeen eskaerei erantzuteko.

13.4. Komunikazio ekintzak

Barne komunikaziorako ekintzak

Barne komunikazioaren estrategiaren helburua da informazioa sistematizatzea eta egituratzea, proiektuaren kudeaketa eraginkorra eta gardena bermatzeko; halaber, komunikazio arina eta efizientea bermatu nahi du zuzenean udal langileen eta politikarien artean.

Proiektua egiteko garatuko ditugun barne komunikaziorako ekintzak honako hauek dira:

- **Aldizkako kudeaketa-bilerak:** Komunikazio eta Gardentasun lantaldearen bilerak (proiektuaren Jarraipen Batzordea); ZT-ko jarraipen-bilerak (proiektuaren Zuzendaritza Batzordea).
- **Proiektuaren eboluzioa eta segimenduaren txostena:** proiektuaren jarraipen-txostenaren aurkezpena komunikazio lantaldean bi astetik behin; proiektuaren eboluzioaren komunikazioa ZT-n (Zuzendaritza Topagunean) sei hilabete behin, baita udal langileei zein politikariei (emaia, bilerak, aurkezpenak...) ere. Udal sail, unitate eta zerbitzuetako arduradunek beren lantaldeetan egiten duten transmisioa erabakigarria da.
- **Dokumentuen artxibo partekatua:** artxibo partekatu bat egongo da komunikazio eta gardentasun taldeko kide guztien eskura, baita proiektuaren dokumentu eguneratuak biltzen dituen ere.

Kanpo komunikaziorako ekintzak

Urtean behin, proiektuari buruzko informazio orokorraren eta lortutako emaitzen berri emango zaio gizarteari. Horretarako, zabalkunde-tresna hauek erabiliko dira:

- Udalaren webgunea
- Sare sozialetan parte hartzea
- Proiektuari buruzko informazio orokorra eta jarduera espezifikoari buruzko informazioa
- Prentsa-oharrak
- Prentsa deialdiak eta prentsaurrekoak
- Eta abar



- **Kanpaina informatiboa egitea edota Udal Gardentasunaren komunikazioa**

Gardentasun proiektua modu hobean komunikatzeko kanpaina informatibo bat ipiniko da abian. Gainera, kanpaina horren barruan udal gardentasunaren beste alderdi garrantzitsu batzuk sartuko diren edo ez aztertuko da; adibidez: Gardentasunaren ataria edota bertan argitaratutako eduki esanguratsuenak eta herritarren esku daudenak.

Aipatutako kanpaina egiterakoan kontuan izan behar ditugun alderdiak honako hauek dira:

1. **Helburuak:** produktu edo zerbitzu berriak ezagutaraztea beharrezkoa izango da, adibidez, aurrekontuak modu ulergarrian erakusteko web-aplikazio berria.
2. **Briefing edo txostena:** egin beharko dugun lanaren dokumentua da. Dokumentu horretan, idatziz jasoko dira kanpaina aurrera eramateko beharrezkotzat jotzen diren elementuak. Jarraian, dokumentu hori kanpainaren liburuxka edo triptikoak egingo dituen enpresari bidaliko zaizkio. Une horretan, ondorengo alderdiak definituko ditugu: xede-taldea edo *target*-a, produktua, erakundearen datuak, kanalen argibideak, bete nahi ditugun helburuak, aurrekontuaren gutxi gorabeherako datuak, gure lehentasunak internet bidez edota beste gizarte bideetatik.
3. **Oinarrizko proposamena:** *briefing*-aren bitartez, kanpainaren materialak egin behar dituen enpresak kanpainaren oinarrizko proposamena lantzen hasteko moduan izango da. Bertan, produktu edo zerbitzuaren onurak aukeratuko dira (arrazoizkoak eta emoziozkoak). Oinarrizko proposamena prest dagoenean enpresa bezeroari aurkeztuko zaio.
4. **Mezuaren egitura:** Kanpainaren onurak zeintzuk izango diren jakinda eta oinarrizko proposamena burututa, mezua egin behar da. Mezuaren diseinua funtsezkoa da, publikora iristen baita eta, batez ere, gure helburuak betetzeko aukera emango digulako. Ondorioz, mezuak argi erakutsi behar ditu produktuaren edo zerbitzuaren onurak, baita azken hori justifikatzen dituen arrazoiak eta bere ebidentzia ere.
5. **Jardueraren egikaritzea:** Kanpaina onartzen denean, eta aurrekontuaren arabera, produktuen jatorrizko bertsio edo originalak egingo dira aukeratutako bitarteko edo euskarrietara egokitzeke.
6. **Hedabideen plangintza:** Zer eta nola esan badakigu, baita zenbateko aurrekontua daukagun ere; beraz, ze euskarri erabiliko ditugun zehaztea falta zaigu, kontuan izanda, betiere, erakundearentzat errentagarria eta eraginkorra izan beharko duela. Horretarako, gure *target* edo publikoa ze hedabideetan dagoen aztertu beharko da.

Aipatutako datuak kontuan izanda, lan plan bat egingo dugu eta, horretarako, kanpainako mezuaren transmisiorako hedabide egokienak aukeratuko ditugu, formatuak, agerpen zenbakiak eta datak zehaztuta. Azken finean, kanpaina egiteko erabiliko ditugun *off* eta *online* euskarri eta hedabide guztien balorazioa eta banaketa edo distribuzioa egin behar da, espazioan zein denboran.



7. **Mezuaren egokitzapena hedabidera eta audientzia edo publiko ezberdinei:** Mezu bat komunikatzea ezberdina da erabiliko dugun komunikazio euskarriaren arabera eta, are gehiago, interneten. Hortaz, mezu orokorra berdina izan arren, hedabide bakoitzera, formatu ezberdinetara eta publiko edo audientzia ezberdinetara egokitu beharko dugu.
8. **Kanpainaren koordinazioa:** Epeen eta lanen jarraipena egiteak ustekabe desatseginak saihestuko dizkigu, egikaritze eta agerpen epeei dagokienez. Ondorioz, eta, batez ere, kanpaina konplexua edo zaila baldin bada, lan plan bat ezartzea komeni da, maniobratzeko tarte bat zehaztuta. Modu horretan, sor daitezkeen gorabeherak konpondu daitezke.
9. **Kanpaina abian ipintzea:** Kanpaina ororen proba nagusia da. Merkatuan prest egon bezain laster, haren *feedback*-a jasotzen hasten gara berehala, hots, gure mezuak izan duen harrera edo onarpena ezagutzen dugu. Nahiz eta kanpaina batek kostu handia izan, ez da komeni hura gelditzea. Hala ere, mezua gaizki ulertzen bada edota erakundearen irudia kaltetu bada kanpoko gertaera batek mezua indargabetu edo horretan eragin dezakeelako, onena, kanpaina bera geldiaraztea da.
10. **Kontrol-sistemak:** Kanpainan proposatutako helburuak bete diren edo ez jakiteko, analisia egiteko unea da.

Proiektuaren kronograman sartu dira jarduera hauek.

Helburuak: kanpo komunikazioa hobetzea, Udalaren komunikazio gardena sustatzea eta Udalaren presentzia handitzea hedabide guztietan.
Hizkuntza: euskara eta gaztelera.
Arduradunak: Alkatetza eta komunikazio- eta gardentasun-taldea.
Editorea: kontratatutako enpresa
Prestatzea eta ezartzea: 2017ko ekaina-abendua
Jakinarazpena: kanpaina argitara ateratzeko unean erabakiko da zenbat esku-orri zabalduko diren etxeetan, enpresetan eta hiriko beste tokietan. Era berean, prentsa-oharra kaleratu edota prentsaurrekoa antolatuko da, zehaztasunak emateko. Bertan izango dira alkatea edota Gobernu Zabaliken ordezkaria eta komunikazio-arduraduna. Udal web-orrian eta sare sozialetan ere albistea aterako da. Agian, banner bat sortuko da kanpainaren berri emateko, eta udal web-orriaren hasieran egongo da denbora-tarte jakin batez.



14. Ebaluazioa eta jarraipena

14.1. Berraztertzea eta eguneratzea

Proiektu hau egoki kudeatzeko, beharrezkoa da jarraipen-mekanismoak izatea eskura, unean-unean aurrerapenak ezagutzeko eta ezarritako mugariak eta jarduerak betetzen ari diren jakiteko.

Horretarako, Komunikazio eta Gardentasun Batzordeak Zuzendaritza Taldeari (ZT), 6 hiletik behin proiektuaren garapenari buruzko txostenak igorriko dizkio. Urtero, Gardentasun Proiektuaren Memoria-Txostena argitaratuko da, eta, hura amaitzean, ebaluazio-txostena egingo da; bertan, lortutako emaitzen berri emango da, eta ezarritako helburuak lortu diren ala ez jasoko da.

Gainera, 2 astetik behin, komunikazio eta gardentasuneko lantaldea bilduko da proiektuaren kronograma betetzen ari den jarraitzeko, baita Gardentasun Estrategia eta erakundearen Komunikazio Estrategia orokorretik sor daitezkeen gaiak lantzeko ere.

14.2. Arriskuak identifikatzea

Jarraipen-, berrikusketa- eta eguneratze-neurriek aukera emango digute proiektua egoki gauzaten dela kontrolatzeko, eta, hala badagokio, zuzentzeko ekintzak sartzeko; horietaz gain, badira beste neurri batzuk aurretik azter ditzakegunak: arriskuak. Ezinezkoa da identifikatzea proiektuari eragin diezaioketen arrisku guztiak, baina horietako batzuk antzeman ditzakegu. Arriskuak gertakari edo baldintza zalantzazkoak dira, zeinak suertatzen badira eragin positibo edo negatiboa baitute gutxienez proiektuaren xede batean, besteak beste, denboran, kostuan, irismenean edo baita kalitatean ere. Egitasmo honetan hainbat arrisku antzeman ditugu. Behin gerta daitezkeen arriskuak identifikatu ondoren, ekintzak ezarri behar dira aukerak hobetzeko eta mehatxuak murrizteko.

Antzemandako arriskuak	Prebenitzeko ekintzak
Politikarien arteko desadostasuna Kontu-sail baten falta	Aurreikusitako epeen barruan informatzea Kostu ekonomikoa suposatzen duten jarduera edo ekintzak atzeratzea. Adibidez: gardentasun mikrositearen sorrera, aurrekontuen inguruko aplikazioa, etbar.
Gardentasun Estrategia ez onartzea Planteatutako ekintzen hutsegitea	Proiektua berrikustea edota aldatzea Jarduerak berrikustea eta ekintza berriak proposatzea
Inplikazio gutxi udal langile edota politikarien aldetik	Doitasunez eta modu laburrean informatzea eta konfiantza sortzea
Herritarrak eta tokiko hedabideak pozik ez egotea	Proiektuaren eta jardueren inguruan aldian-aldian eta modu argian, errazean eta eraginkorrean informatzea. Konfiantza sortzea.
Egingo den parte hartzearen eta gardentasunaren ordenantza bat ez etortzea Gardentasun Planaren eskema edo garapenarekin	Koordinazio handiagoa, berrikusketa, Planaren eskema berri baten proposamena, etab.



15. Bibliografia

- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. Titulua. Gobernu Irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte hartzea.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa
- 2014ko otsailaren 6ko 4/2014 Foru Araua, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa
- 128/2016 Dekretua, irailaren 13koa, Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordeari buruzkoak (EHAA 177 zk, 2016-09-16)
- Tokiko Politikaren kalitate Institutuzionalerako Konpromesu, Jokabide eta Gobernu Onerako Kodea (EUDEL)
- Udal gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko eskuliburua (EUDEL).
- Nazioarteko Gardentasuna Espainia erakundearen Udalen Gardentasun Indizea (UGI)
- 80 praktika on udal gardena lortzeko. EUDEL (2014)
- Gardentasuneranzko Ibilbide Orria: Udal gardenagoa eraikitzeko estrategia eta tresnak
- “Embarcamos en la Transparencia. Manual de tripulación”. Eusko Jaurlaritzak. 2016.
- “Acceso a la Información, Transparencia y Protección de datos”. (DBEB). 2014.



16. Eranskina

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen prozeduran erabili behar dira honako dokumentu hauek:

- Prozedura fitxa (Informazio Publikoa eskuratzea)
- Informazio publikoaren eskaera-orria
- Informazio publikoaren eskaeraren inguruko jakinarazpena
- Informazio publikoaren eskaera: bidaltzea organo eskudunera (kanpora bidalitako informazioa)
- Informazio publikoaren eskaera: bidaltzea organo eskudunera (beste batzuen informazioa)
- Informazio publikoaren eskaerari buruzko txostena
- Alkatetzaren ebazpena: informazio publikoaren eskaera
- Alkatetzako ebazpenaren jakinarazpena
- Alkatetzako ebazpena: Informazio publikoa eskuratzeko izeneko datu pertsonalen fitxategia sortzea



Argitalpena

Lehena, 2017ko azaroa

Egiletza

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Eibarko Udala

Internet

www.eibar.eus

Editatzailea

Alkatetza

Eibarko Udala-Untzaga plaza, 1. 20600 Eibar

Komunikazio lantaldea

Ana Telleria Echeverria
Begoña Dorronsoro Larrea
Iratxe Picaza Añibarro
Pedro Irusta Mendieta

Itzulpena

Junkal Txurruka Arrizabalaga
Karmen Bikuña Bikuña
Idoia Argoitia Urkiola
Nerea Azkarate Iburguren
Pedro Irusta Mendieta